

uk

214. zenbakia / 2012ko maiatzaren 22a



URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urtero argazki zahar eta barriak
Urtero zure proiektuak lau haizetara
Urtero 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

Dacia Sandero

5.790€¹ tik hasita



Dacia Duster

10.400€² tik hasita

URTEBETEZ³ ASEGURUA DOAN



Dacia España | Dacia ESP | **3 URTEZ BERMEA EDO 100.000 km**


www.dacia.es

Dacia Sandero: Kontsumo mistoa (l/100Km) 4,0tik 7,3ra. CO₂ isuria (gr/Km) 104tik 169ra.
Dacia Duster: Kontsumo mistoa (l/100Km) 5,0tik 8,0ra. CO₂ isuria (gr/Km) 130tik 185era.

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Devustu - Bilbo
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagarmínaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gijarubia, Irantzu Sagarmínaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAIKAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamas, David Crestelo Kres, Algortako Bertsio Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martínez (944 911 337)
FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 BERENGOKO UDALA
 Erandioko Udala	 Sopelana Udala
 Urdulizko Udala	 Plentziako Udala
TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	
Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du	
 Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Suziria Getxon.
6. FACEGUK. Zein murrizketa egingo zenuke zeuk barikuro?
7. LEHEN ETA ORAIN. San Inazio eliza, 1900.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Esther Zorrozueta.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Athletic zaleak Getxon UEFAko final egunean.
28. ARGAZKIA. Plentziarrak futboleak.
30. BERBETAN. Asier Bilbao eta Ondiz Barandalla.
34. FOTOGRAFIA. Natxo Pedrosa.
40. SAKONEAN. Zero Zabor ekimena.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Animabasauri/Animabasque.
43. MUSIKA. Larrabetzifest.
44. LIBURUAK. Literatura0123.
45. KIROLAK. Bizkerrekoen txapelketa.
46. ELKARRIZKETA. Asisko Urmeneta.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Rukula izokinagaz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Areetako Raspa, 1945.
54. AITORMENAK. Ibon Altuna.

Azala: Natxo Pedrosa

www.ukaldizkaria.biz



30 O. Barandalla eta A. Bilbao

Berbetan

Urtxintxa Eskolako kide urkostarrak berbetan egon gara, Eskolak zilarrezko ezteiak betetzen dituela-eta.



11 Esther Zorrozueta



54 Ibon Altuna

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Athletic

Asko gustatzen zait futbola. Eta bai... Athleticakoa naiz, peto-pettoa gainera. Baina azken asteetan bizi izan dogunak ez dakit gehiegikeria puntu bat daukan. Nik baietz esango nuke; Final batera heltzeak garrantzia du, eta noski, pozik eta alai egotea ondo dago. Are gehiago: Athletic zale batentzat nahitaezko egoera da. Urte mordoa pasa dira honako mailako finalera heldu gabe... baina, pasa egin gara. Herria (Bizkaia behintzat) gelditu egin da pare bat egunetan: bata, partidako egun berean; bigarrena, hurrengoa. Beste berririk ez zegoela ematen zuen: zoratu egin zaigu. Krisiak, laga genduen lekuan bertan jarraitzen du. Egundatez larrialdiak ahaztu ditugu. Ondo da... baina, kontuz: ez gaitezen antzinako erromatarrak bezalakoak bihurtu. 'Pan et circensis'-erako baino ez ziren bizi. Eta guri, garai hauean, ogia kentzekotan daude batzuk. Zirkoarekin geldituko ote?

gu geu**Guretzat bere urten da eguzkia!**

Negar anpuluen lekua izan da oraintsu arte GuGeuren txoko hau, oraingo krisiak lehengo krisia baino putzu sakonagora eroan gura izan gaituelako, eta iluntasunean larri eta apur bat noraezean ibili garelako... Eskerrak esperantza eta ilusioa ez dugun galdu, eta negua legez (guretzat berandutxuagoa, baina...) joan dira egun goibelak... Joan, 'amaitu' berba noizbait erabiltzeko itxaropena ere ez dugu galdu, oraindik...

Jaso ditugu promestutako baliabide ekonomikoak, benetan eskertzen diegun zenbaiten ahalegin eskergaren ostean, han eta hemen, hari eta honi, gure egoera larriaren ezinegona hamaika biderrez adierazi ostean... Egundatez eguzkitsuagoak maiatzeko hauek, bai! Eta eguzkiak eraginda ere, irribarretxoak marraztu zaigu aurpegian... Getxoko sanisidroetara etorritako pailazoan antzera, geu bere irrien lagunak garelako...

Malko eta barre; laino, euri eta eguzki; itxaropen eta desilusio; zaletasun eta *demasa*; beharrak eta aisialdikoak; egitasmoak, ahaleginak eta erronkak; larritasunak eta gozamenak; eta gainontzeko danak... zaku berean sartuta lepo gainean ibiltzea izan liteke bizitza! Bada, inor ahaztu barik, eta danak gogoan, segi aurrera eta altxa gazteak!!

Laster batean helduko den udako eguraldiaz, oster, oraindik ez dakigu askorik, baina...

UK-ko lan-taldea**Iritzia**

Biktima eta memoriaz hainbat berba egiten den garaiotan, Ahaztuak elkarteko kide Martxelo Alvarez berangoztarrarengana jo dugu euren iritzia ezagutzeko.

Oihu salataria

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak frankismoaren errepresioaren ahazturaren eta zigorgabetasunaren kontrako borrokan jardun du 2006az geroztik. Gogora dezagun gure historia hurbila! Duela hiru hamarkada luze, bikain saldatuko "trantsizio eredugarria" ez zen 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarraz geroztik izandako errepresioaren kontrako jarduera sinetsgarria burutzeko gauza izan.

Horixe dela eta, frankismoa eta bere osteko eraginaren gaineko salaketa politikoa burutzen duen herri mugimendu dinamikoa eta eraginkorra sortu da. Espainiar estatuan zehar zabalduta, jarduera hau tinko errotu da Euskal Herrian. Nolabait, jendarte osoak, baita sail guztietako agintari politikoez ere, bere buruari begiratzen dio Memoriaren ispiluan. Bide honetan hainbat nazioarteko erakundek arazoia eman digute; besteak beste, diktadorea hil

ostean halabeharrez ezarritako "Trantsizio" izenekoak frankismoko hiltzaile eta laguntzaileei emaniko 1977ko "Azken Puntua" delako Legea bertan behera uzteko eskatu dute NBERen Giza Eskubideen Komiteak zein Amnesty Internationalek.

Honen aurrean, estatu zein autonomiako eragile politikoek hainbat lege eta araudi argitaratu dute, azkenetarikoa 2007ko Memoriarena. Adabakiak baino ez dira izan! Frankismoarekin apurtzeari dagokionez, azken 35 urteetan oso gutxi aurreratu da. Francoren epai-mailek ezarritako epai guztiak indarrean daude; ondorioz, historiaren aurrean, garaiko demokraziaren kontra altxatutako militar hiltzaileak legalak dira eta altxamendu faxistari aurre egin ziotenak kriminalak baino ez.

Trantsizioaren osteko zigorgabetasuna sustatzeko, Epaitegi Konstituzionalak ebatzi du frankismoaren heriotzak ez direla jendartearen kontrako krimenak. Beraz, preskribitu dira eta, ondorioz, judizialki ezin jazar daitezke. Beste adibide bat, aurki Nafar Gobernuak ez digu baimenik eman frankismoaren kontrako borrokan hildako Jokin Artajo eta Alberto Asurmendi borrokalariari omenaldia egiteko. Francoaren diktaduran alderdi "ilegal" bateko militanteak zirela arrazoitu zuen Nafarroako Gobernuaren bozeramaileak. Aitzitik, prentsaren aurrean ohore handiko jakinarazpenak egin eta ekitaldi garestiak antolatzen dituzte, gaiaren gainean ari direla adierazteko asmoz.

Sortu zenetik, Ahaztuak 36-77 elkarteak herri eta auzoetan lan egin du frankismoaren biktima guztientzako Egia, Justizia eta Ordaina lortzearen alde. Zigorgabetasuna, beldurra eta isiltasuna defendatzen dutenen aurrean, Euskal Herriko biktimen aldeko memoria eta jarduera herri-tarrari ekiten diogu egunez egun. Oihu salataria!

Martxelo Alvarez
(Ahaztuak 1936-1977)

[irudia]

GETXO, 2012KO MAIATZA

Hiru, bi, bat... danba! / Getxoko San Isidro jaietan jaurti zuten txupina maiatzaren 11n eta, haregaz batera, piztu da suziria: uda iristekotan da eta hasi da herri zein auzoetako jaien maratonia; hemendik aurrera gelditzeko betarik ez da izango iraila bitartean. Laster datoz Lamiako eta Txorierriko jaiak Leioan, baita sanjuanak ere, bai Leioan, bai Barrikan. Sopelan ere zuzendu dute arreta sanpedroetara... Jai Batzordeak eta Udalak lanean dabilta herriz herri, jo eta ke, ekitaldiz betetzeko gure jaiak. Beraz, badakizu, jairik jai ondo pasa eta gozatu! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zein murrizketa egingo zenuke zuk zeuk barikuro?



Getxo

Estrella Díaz

> langabea

Hasteko politikarien soldatetan egingo nituzke murrizketak. Nik neuk, ez dut uste beharrezkoa denik gizartean murrizketarik egitea. Kontua da, langile-klaseari murrizketak egiten dizkiotela, berriak ondo bizi ahal izateko. Baina, benetan ez da beharrezkoa gizartean inolako murrizketarik egitea.



Algorta

Jesus Quintans

> jubilatua

Gobernu guztiei eta noski, iruzurgileei ere bai. Azken finean, dirua lapurtzen duen koadrila osoari. Horrenbestez, lapurtzen duten horiei guztiei sekulako murrizketa egingo nieke.



Algorta

Maximo Ortega

> langabea

Nik ez daukat zalantzarik, politikari guzti-guztiei moztuko nieke burua. Hori bai murrizketa! Eta ez horiei bakarrik, politikari, sindikalista, zein zurrupatzaile guztiei ere, moztuko nieke burua. Hori murrizketa ona izango litzateke.



Algorta

Paul Laka

> ikaslea

Herrian jartzen dituzten pantaila erraldoietan egingo nituzke murrizketak. Horrez gain, estatuko segurtasun-indarretan ere dirua aurreztuko nuke, eta murrizketak egingo nituzke; batez ere, ez direlako behar, eta azken aldian hori ikusten ari delako. Beraz, sobera daude.



Bilbo

Igor Portillo

> segurtasun-langilea

Politikarien soldatak murriztuko nituzke. Izan ere, beste gauza batzuetan ez da beharrezkoa murrizketak egitea; barbarako, osasungintzan edo hezkuntzan. Horrela, politikarien kontratu-blindatu guztiak murriztuko nituzke; mileurista izan behar badugu, izango gara, baina denok: gu eta eurak ere bai.



Algorta

Sara Iglesias

> ile-apaintzaile laguntzailea

Laguntza-publikoak murriztuko nituzke. Uste dut laguntza asko ez daudela ondo bideratuta, eta askotan laguntzak jasotzen dituzten batzuk ez dituzte behar. Oro har, pentsatzen dut txarto banatutako laguntzak direla. Hori bai, gaur egun, hezkuntzan egiten ari diren murrizketak, barbarako, ez nituzke sekula ere egingo.



Iraganez doa denbora* beti / SAN INAZIO ELIZA, 1900

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kaktusa



Generatxu, 2012ko otsaila

Testua: **Josu Landeta** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Gai horrek badu mamia

Hamaika hatz alboetan, oldarkorrek nabarmen, hamaika arantza bakoitzak, a zer zorrotzak diren! Landare sikua baina badaki ura topaten. Jeneratxun dago tinko landako bazter baten; ai bikote horreek, gabez inon etzan baino lehen, ondo kontu egizue azpian zer dagoen.

Bere armak agerian prest da sortzeko gerra, holan pentsa leike dala apaingarri okerra; baten batek koxi ahal dau ebagiteko zerra. Gero, ostera, ez dogu horren landare alferra, itxura badeko bere motza eta landerra handikien eperdian zinez litzake ederra.

Zugatzak alboan eta harripean abaro, halako pasaia hezean emoten dau arraro. Euskal Herrian gabiltza gero (e)ta apalago, halanda bere kaktusa harro (e)ta sendo dago. Landare arrotza dan arren, hau itxi daigun klaro: gure herriak behar leuke horrelako gehiago.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



Info+: www.ihesi.com

euskal turismo gida > Ihesi-n zazpiak bat

Euskal Herriari Ihesi gida martxan da. *ihesi.com* euskarazko turismo gida interaktiboa da, “zazpi lurraldeetako herriak oinarri hartzen dituen lehen turismo gida interaktiboa”. Argia aldizkariaren egitasmo honen arduradunek adierazi dutenez, “*Euskal Herriari bidaiatzen dugunean sortzen zaizkigun eguneroko galderei erantzuna eman nahi die; sarean guztiok egindako gida denon kontsultagarri jarri nahi da, bai*

kontsultak egiteko, bai ingurukoiei gomendio onak emateko”. Erabiltzaileen proposamenetan oinarritzen da webgune osoa, edukiak Creative Commons lizentzia jarraituz erabil daitezke. Informazioa “lurraldeka eta zonaldeka sailkatuta dago”; herriaren fitxan informazio orokorra zein baliagarria, argazkiak eta planoak kontsultatu daitezke, eta behean erabiltzaileek egindako gomendioak daude.

kosta trail > izen-emotea zabalik oraindik

Urbe Kostako itsasertzeko labar-bideetatik pasatzen den mendi lasterketa, Kosta Trail, ekainaren 10ean egingo da. Ostera, Forum Sportek antolatzen duen 30 km-ko lasterketan izena emoteko epea maiatzaren 28an amaituko da. Lasterketa egunean, urteera Sopelako udaletxean egongo da, korrikalariek Berango bidean dauden pinudi eta eukalipto guneak pasa eta Galeako labarretara joan ostean,

Gorrondatxe eta Barinatxe hondartzak atzean utzi, eta Barrika zeharkatuz Plentziara helduko dira, handik Ermu mendiko gailurrean gora egin ondoren, Cabo Billanoko itsasargira iritsi orduko galapan beherantz egin beharko dute, barriro, Plentziarantz, han izango dute eta helmuga. Lasterketa nagusiaz gainera, Mendi Ibilaldia (20 km) eta Familia-ibilaldia (12 km) ere antolatu dute. ○



Info+: www.kostatrail.com



Info+: dokuklik.snae.org

dokuklik > sei milioi dokumentu sarean

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak martxan ipini duen bilatzailea da *Dokuklik*. “1989an, IRARGI Euskadiri buruzko informazioa batzen hasi zen bere lurraldetik kanpo zeuden artxibofuntsetan”, eta ondorengo urteotako eginbarren ostean abiatu dute orain webgunea. XIII. eta XX. mendeen arteko sei milioi dokumentu publiko eta pribatu, eta milioi bi irudi baino gehiago

batu ditu webguneak; Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroan (IRARGI) gordetako dokumentu historikoak batzeaz gainera, 150 erakunde publiko, fundazio, familia eta norbanakok jarri dituzte euren artxiboak kontsultagai. Arduradunek aurreratu dutenez, etorkizunean musika eta ikus-entzunezkoen artxiboak ere jasoko ditu bilatzaile honek. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Hurrengo irabazlea: zeu!

Gidabaimena euskaraz

“Gidabaimena euskaraz” kanpaina, Getxoko, Erandioko eta Uribe Kostako Mankomunitateko udaletan jarri da martxan, herriotako autoeskolen laguntzaz. 2011n, 48 ikaslek egin zuten azterketa euskaraz kanpaina zabaldu den herrietan. Getxon, Erandion eta Uribe Kostan 28 gaztek gainditu zuten euskarazko proba.

Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenek Europan zehar trenez bidaiatzeko zozketa batean parte hartzen dute. **2011koa ere getxoztar bati egokitu zaio saria, Gorka Saitua La Torre gazteari. Zorionak!**

Logoak: Getxo, EUSKARA BIZI, ERANDIO, URIBEKOSTAKO, EUSKARA ZERBITZUA, IGORREKO UDALA, ALKARBIDE, BFA DFB, EUDAL.



[publizitatea]

“Ez da heriotzari buruzko eleberri bat, bizitzari buruzkoa baizik; bizitza duintasunez bizi behar da azken momentura arte”

Esther Zorrozueta > Idazlearen laugarren eleberria kalean

Metroan musika entzuten doan gaztea, gauero txakurra paseatzen duen auzokide bakartia, egunkaria goizero saltzen duen banatzailea.... Zelakoa ote da gure inguruan bizi direnen bizitza? Inguruko errealitateetan oinarrituta sortzen ditu Esther Zorrozueta idazleak eleberriak. Irudimena lagun, berangoztarrak bere laugarren nobela kaleratu barri du: *Fuga para un pianista* (Alberdania). Istorioa idazten hasi zenean, bikote baten nondik norakoak kontatzea zen bere asmoa: “*Baina istorioa azkenean beste alde batetik joan zen... Emazteagaz ez nekien zer egin, eta pentsatu nuen... hil egingo dut! Beti uzten diet istorioei euren bidea egiten*”. Bere emaztea hiltzen denean, Esteban izeneko pertsonajea munduagaz haserretu, eta bere buruaz beste egiten laguntzeko eskatzen dio bere zaindariari: “*Ez da heriotzari buruzko eleberri bat, bizitzari buruzkoa baizik; bizitza duintasunez bizi behar da azken momentura arte*”. Zorrozuak aitortu digunez, pertsonajeen barnean sartzeko joera du idaztean: “*Idazleak beti ikasten du zerbait idaztean, eta nik ikasi dut nire zahartzarora ondo planifikatu behar dudala horrelakoak ez gertatzeko*”. Erandioko Ategorri Institutuan irakasle denez, oraina ere planifikatu behar izaten du, idazteko astia topatzeko: “*Idaztea ez da bakarrik ordenagailu aurrean jartzea eta orriak betetzea; pentsatzea ere bada, behatzea, hausnartzea...*”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Legegintzaldirako plana

2012-2015 legegintzaldirako plana aurkeztu du alkateak, eta, haren arabera, **aurreko proiektuakaz segituko dute; baina PSE-EEk eta Bilduk kritikatu dute EAJ-ren egitasmoa**

Legegintzaldi honetarako asmoak aurkeztu ditu Getxoko Gobernu Taldeak (EAJ). Hasitako proiektuakaz jarraitu eta horietan sakonduko ei du, baina alderdi batzuek kritikatu egin dute Plana edo berau azaltzeko prozedura.

“Tokiko garapena bultzatu jardura ekonomikoa sustatuz, krisiak zigortutako kolektibo behartsuenei arreta ematea lehenetsi, Getxo modernizatzen jarraitu, eta zerbitzu publikoen eta baliabideen kudeaketan zorrotasuna, erantzukizuna eta eraginkortasuna mantendu”. Horiek dira Udal Gobernu Taldearen 2012-2015eko Legealdi Planaren helburu estrategiko garrantzitsuenak. Imanol Landa alkateak aurkeztu zituen maiatz hasieran. Bere ustez, krisialdiak markatutako Legealdi Plana da, aurrekoari jarraipena ematen saiatuko da eta kudeatzeko **“oinarrizko baliabideak eragile sozial eta politiko desberdinekiko elkarrizketa eta hitzarmenak bilatzea dira”.**

Dinamizazio ekonomikoaren alorrean, hainbat asmo nabarmendu du, besteak beste: Ekonomiaren Sustapenerako Plan Estrategikoa egitea eta hedatzea; udalerriko merkataritza, ostalaritza eta turismo arloko ehuna indartzea; eta enpresa-ekimenak udalerrira erakartzera zuzendutako politikak bultzatzen jarraitzea.

Gizarte-politikei dagokienez, **“getxozarren premietara egokitu eta arreta finkatuko”** ei du Gobernu Taldeak: **“Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bulego deszentrali-**



Info+: www.getxo.net

zatuak indartuz eta gizarte-langile erreferentearen irudia bultzatuz eta txarto pasatzen ari diren kolektiboak inoiz baino gehiago artatuz”. Era berean, **“modernizazioan aurrera egiten segituko”** ei du Gobernu Taldeak hurrengo proiektu-

“Modernizazioan aurrera segituko dugu hainbat proiektugaz: Getxo Antzokia edota Romoko Kultur Etxea”

kaz: Getxo Antzokia, Musika Eskola, Romoko Kultur Etxea edota Areetako Geltokia plazaren proiektua. Gainera, **“etxebizitza eskuratzen, eta aparkalekuak eta mugikortasuna bultzatzen jarraitzeko politikak sustatuko”** ei ditu.


Bestalde, hainbat Plani ekingo diete kirol, berdintasun eta euskara arloetan.

Azkenik, **“etorkizuneko Getxo modu parte-hartzailean, iraunkorren eta adostasunez”** definituko dela iragarri du alkateak.

Baina udal-alderdi batzuek kritikatu egin dute EAJ-ren Legealdi Plana. PSE-EEk salatu du Gobernu Taldeak ez duela Plana eroan Osoko Bilkurara, ezta aurreko Planaren betetzea zertan den azaldu ere: **“Gobernu Taldearentzako tresna besterik ez dela, eta ez dela Udaletxe osoarena”.**

Bilduren iritziz, bestalde, **“kaxa hutsa”** da Plana. Dioenez, **“diskurtso politikoki erabat zuzena osatu du”** EAJk, baina ondoko galderak plazaratu ditu: **“Non daude asmoak herriaren nortasunean eta egunerokotasunean egia bihurtzeko beharrezko neurri berriak? Non garai sozial, politiko eta ekonomikoari erantzungo dioten politika ausartak?”** ○

Euskara Plana onartzeko prozesua abiatu dute, eta ekarpenak jasoko dira



Txostenak ikusteko: www.getxo.net

“Ezagutza eta erabileraren artean dagoen aldea murrizteko lan egingo” du Getxoko III. Euskara Planak, Imanol Landa alkateak azaldu duenez. Euskara Zerbitzuak hizkuntzaren gaitasunari eta erabilerari buruz burututako azterketen emaitzetan oinarrituta dago Plana. Maiatzaren 3an aurkeztu zuten, eta herritarren ekarpenak batu gura ei dituzte hemendik aurrera: **“danon kolaborazioa beharko da Plana gauzatu ahal izateko, euskara guztiona delako”.**

Esan bezala, Euskara Zerbitzuak burutu ikerketan desoreka handia nabarmendu zen euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean, eta, ondorioz, bien arteko alde hori murrizteko helburua izango du Planak, ondokoakaz batera: Euskara belaunaldiz belaunaldi eta eten

barik transmititzea, familia, eskola, helduen euskalduntzea eta kulturartekotasuna landuz; euskararen erabilera ziurtatzea administrazioan, aisialdian, kirolean, kulturen, lan-munduan eta abar; eta hizkuntza etengabe elikatzea, eroso eta erraz hitz egiteko: barbarako, plangintzak eginez kulturgingintzan, komunikabideetan eta teknologia barrietan. Betiere Udalaren arabera.

Plan barria dokumentu **“irekia”** izatea gura ei du, **“herritarren, elkartearen, eta erakunde sozial eta politikoen iradokizunak eguneratua”.** Horregatik, Udalaren webgunean eskuragarri daude txostenak eta ekarpenak bidal daitezke e-postaz, faxez edo idatziz. Udalak datuen laburpena jasotzen duen hiru-orrikoa helaraziko du getxozarren postontzietara. ○

AIXE GETXO! SARIAK BANATU DITUZTE

Udalak 13 kultur-ekimen eta eragile nabarmendu ditu Aixé Getxo! sarien bitartez. Ondokoak dira: Ibarretxe anaiak zinegileak, Gonzalo Martínez-Azumendi argazkilaria, Asier Hormaza aktorea, Miguel Ituarte pianista, McEnroe pop-rock taldea, Unai Elorriaga idazlea, Ailanto moda enpresako Iñaki eta Aitor Muñoz anaiak, Javier Perez de Urbarri arkitektoa, Fernando Canales sukaldaria, “Harresiak apurtuz” GKE, Felix Goñi Biokimika eta Biologia molekularrean katedraduna, Spotbross enpresa eta Filatelia Elkartea.

SANINAZIOETAKO KARTEL-LEHIAKETA

Algortako San Inazio jaietako kartela izango dena aukeratzeko lehiaketa deitu du jai-batzordeak; uztailearen 27tik 31ra bitartean ospatuko dira aurreko lehiaketa. Lanak entrega daitezke ekainaren 7 arte, Villamonteko Etxabaida Gunean. Epaimahaiak hiru lan aukeratu du eta facebook zein webgunearen bidez zabalduko dituzte, ondoren herritarrek aukera dezaten gogokoena; ekainaren 14 arte bozkatu ahalgo dira lanak. Irabazleak 300 euro jasoko du.

Info+: aixerrota.jaiabatzordea@gmail.com

BAPIRUKU UDALEKUETAN IZENA EMATEA DAGO

Urtero lege, umeentzako udalekuak egingo ditu Bizarra Lepoan elkarteak eta izena eman daiteke. Hiru txanda izango da eta denetan osatuko dituzte taldeak euskaraz ondo egiten duten zein euskaraz komunikatu ezin duten umeak: ekainaren 25etik 29ra, uztailearen 2tik 13ra eta uztailearen 16tik 27ra. Izena emateko Bizarra Lepoan elkartearen bulegora hurreratu behar da (Martikoena 16, Algorta). Bazkideek, maiatzaren 21etik 24ra egin behar dute eta, bazkide ez direnek, 28tik 31ra (biak barne): egunero 10:00etatik 13:30era, eta martitzen eta eguenetan 17:00etatik 18:30era ere.

Info+: www.bizarralepoan.org

naturlan

Lorezaintza zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros "Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileeta kalea 1 • ALGORTA

Lander Labajo > Eneko Aritzaren Lagunak Elkarteko kidea

“Sua filma proiektu herrikoia eta herritarra izan da; uribe kostar askok parte hartu du”



Sua filmaren grabaketaren irudi bat, Azkorrin

Datozen asteotan estreinatuko da **Sua** filma, baina ez da egitasmo barria: duela zortzi urte hasi zen **Uribe Kostako** eta **Ibarrako** lagunarteko proiektu gisa. Istorioa **Lapurdin** kokatzen da, duela 400 urte, eta **Pierre de Lancre** pertsonaia hartu dute oinarri: **Frantziako** gobernuko ‘inkisidorea’. Testuinguru horretan kokatzen da istorioa eta uribe kostar askok parte hartu du aktore gisa. Azkenean amaitu dute ekoizpena eta emaitza erakustea dagokie orain: ekainaren 2an izango da estreinaldia **Ozaetan**; **Algortan**, barriz, uztailaren bigarren astean.

—Lehenik eta behin, kontatuko diguzu zer izan den proiektua?

—Eneko Aritzaren Lagunak Elkartetik sortu zen **Sua** filma. Orreagako gudari buruzko film laburra egin genuen, eta horren ostean animatu ginen zerbait handiagoa egitera, izan ere, lan arrakastatsua izan zen: argitaratu zen eta lanketa handia egin zen. Baina ez da gauza bera film laburra eta pelikula, eta denboran asko luzatu da azken proiektu hau. Pelikula bat egiteko behar genuen azpiegitura, dirua e.a. Baina guk ez dugu ezer izan,

gogoa bakarrik. Hasieran jende talde handia zegoen prest laguntzeko, eta azkenean talde txikiagoak amaitu du. Behar handia da, eta ez gara profesionalak. Baina pozik gaude.

—Zer kontatzen du?

—Nafarroako historian oinarrituta dago. **Pierre de Lancre** pertsonaia oinarri hartu genuen: **Frantziako** gobernuaren izenean **Ipar Euskal Herriko** euskaldun asko erretzea agindu zuen, **Espainiako** inkisizioak bezalatsu. Giro horretan kokatzen da filma, **Lapurdin** eta duela 400 urte. His-

torian oinarritutako istorioa egin dugu, horrenbestez, gauza asko gure irudimenetik sortu ditugu: pertsona-komuna bat irudikatu dugu, eta agian, garai hartan ez ziren horrela egituratzen herritarrak. Dena ez baitago idatzita.

«Historian oinarritutako istorioa sortu dugu, gauza asko gure irudimenetik»

—Bai zuzendari, bai aktore, bai bestelako teknikari, uribe kostar asko aritu da.

—Ibarra eta Algortako lagunak elkartu ginen. Motorea esango nuke **Ibarran** egon dela, baina gero elkarren artean partekatu dugu sekuentziak prestatzea eta ekoizpena. Gurean, besteak beste, **Meñakozen** eta **Azkorrin** grabatu genuen filma. Herritarren artean ere zabaldu genuen mezua parte hartzeko, eta lagun mordoa batu ginen. Guztira, 1000 lagun inguruk parte hartu du filman: proiektu herrikoia eta herritarra izan da. Gainera, guztiek egin dute ekarpena, adibidez, jantziak eta bestelakoak lortzeko. Azpiegiturak guk geuk eta jendeak ipini genuen.

—Azpiegitura barik, grabaketak ez zenituzten egingo platoetan, ezta?

—Gehienak kalean egin genituen, natura eremuetan; baita baserri zaharretan ere. Zazpi herrialdeetan grabatu genuen.

—Zortzi urteren buruan, azkenean erakutsiko duzue emaitza, gogotsu zaudete?

—Batez ere gogoa daukagu hau pasatzeko, zortzi urte luze joan dira-eta. Milaka grabaketa-ordu dago, eta lan handia izan da hori dena film batean txertatzea. Jende askok ere parte hartu zuen, eta guztiak atera gura genituen, den-denak agertzea posible izan ez bada ere. Orain herriz herri erakusten saiatuko gara: lehen hitzordua dugu ekainaren 2an, **Ozaetan**. ○

Artisauak Areetan

Ohiko **Eskulangintza Azoka** egingo dute Areetan **maiatzaren 25etik 27ra**



Areetako Geltokia plazak hartuko du azoka, urtero legez

Urteroko hitzorduaren zain dago lagun asko: **Eskulangintza Azoka** egingo dute Areetan **maiatzaren 25etik 27ra**, **Geltokia** plazan. Beraz, eskulangintza tradizionalaren erakusleho bihurtuko da **Getxoko** auzoa hiru egunez.

Hainbat lekutatik etorritako 98 artisauk erakutsiko dituzte beren lanak **Geltokia** plazan, eta askok zuzenean erakutsiko dituzte hainbat objektu egiteko teknika eta prozedura tradizionalak. Danetik ikusi eta erosi ahal da, eta material askotakoak: egurra, zilarra, metala, buztina, kristala, ehuna, artilea, e.a. **Bitxigileak**, **zapatagileak**,

jantzigileak, **jostailugileak**, **zermakariak**, **otzara-egileak**, **burdina** edota **egurra** lantzen dutenak e.a.; mota guztietako artisauak bisitatuko dute Areetan. Goiz eta arrastiz egongo dira ikusgai postuak, **11:00etatik 14:30era** eta **17:00etatik 21:00etara** (zapatuan **21:30 arte**). Azken urteotan bezala, sarrera doakoa izango da.

Horretaz gain, ohiko gastronomia eremua ipiniko dute **Romoko Ibaiondo** kalean, 14 postugaz: **esnekiak**, **gozoki** edota **okindegi** produktuak dastatu eta erosi ahal da. On egin! ○

Info+: www.getxo.net

ARGIHIZKIAK LEHIAKETA, TESTUAK BIDALI 31RAKO

Argihizkiak argazkietan oinarritutako euskarazko testu laburren lehiaketan parte har daiteke daborduko: 16 urtetik gorako edonork parte har dezake, **Getxoko** izan edo ez. Hainbat argazki dago aukeran, eta horiei buruzko testua sortu behar da lehiaketan parte hartzeko; euskaraz, noski. Testua bidaltzean, zein argazkiri dagokion azaldu beharko du parte hartzaileak. **Kategoria** bi dago, **bata** SMS mezuena, **bestea** posta elektronikoa mezuena. Edozein testu mota onartuko da, izan olerki, bertso, prosa edo bestelako; **maiatzaren 31 baino lehen** igorri behar dira. **Argazkiak** ikusteko edota **baldintzak** eta oinarriak ezagutzeko: **619 935 541** telefonoa edo argihizkiak@gmail.com helbide elektronikoa.

Info+: www.egizu.org

BIGARREN ESKUKO LIBURU AZOKA

Zazpigarrenez egingo dute **Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa** **Algortan**, **maiatzaren 31tik** ekainaren 3ra; **Geltokia** plazan ipiniko dute karpia. **Liburuak**, **aldizkariak** edota **filmak** erosi ahal da euro baten truke, eta, **bildutako dirua**, **GKE** batek bultzatutako elkartasun-proiektu batera bideratuko dute. **Norbanakoek** eta **liburutegiek** eman dituzte **azokarako** liburuak, **dohaintza** gisa.

NAFAR KONKISTARI BURUZKO HITZALDIAK

Bolivartiar Ikaskuntza Elkartea hainbat hitzaldi gauzatzen ari da hil honetan **Nafarroako** Erresumaren konkistari buruz. Eta oraindino badago aukera azken biak entzuteko. **Lehen** izango da **maiatzaren 24an**, **19:30ean**, eta **Aitzol Altunak** hitz egingo du **Bizkaia**ren sorrerari buruz. **Bigarrena**, barriz, **hilaren 29an** izango da, **19:00etan**, eta **Tomas Urzainqui** azalduko du “**konkistak dirauela**”. **Getxoko** Udalak eta **Pro Libertate** **Nabarraren** laguntza daukate antolatzaileek.

Info+: www.bolibar.org

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Eva Vazquez > Perseo Zineforumeko lehendakaria

“Zaletasuna dago Leioan; kalitate oneko gauzak ematen dizkiozunean jendeak erantzuten du”

Hamar urtetik gora joan dira Perseo elkartekoak Zineforumara antolatzen hasi zirenetik. Hasieran hogeitaz lagunen kontua ziren proiektioek ehunka pertsona biltzen dituzte gaur egun, martitzenero, Kultur Leioan.

—Kultur Leioan egiten duzue Zineforumara, baina ez zineten han hasi, ezta?
—Kultur Leioa zabaldu aurretik Udalak utzitako lokal txiki batean egiten zen, ni ikusle gisa joaten nintzen. DVDak alokatu eta proiektatzen zituzten; 20 lagun inguru elkartzen ginen. Baina Kultur Leioa zabaldu zutenean bertan egiteko eskatu genuen. Ordutik nik daroat ekimena, beste bi lagunen laguntzagaz.

—**Filmak aurkezten dituzue?**

—Bai. Zinema onaren aldeko zaletasuna sustatu gura dugu, baina jendea ohituago dago pelikula komertzialak ikustera. Beraz, hezi behar dira ikusleak apurka-apurka, bestela ikararatu dira. Horretarako da aurkezpena: azaltzen dugu nor den zuzendaria, zergatik aukeratu duen film hori, zer kontatu gura duen, zein bitarteko tekniko erabiltzen dituen, etab. Gainera, emanaldiaren ostean, ikusleek galderak egin eta zalantzak plazaratzen dituzte. Duela 12 urte hogeitaz lagun hasi



Ikasturte osoan zehar egiten dute Zineforumara, martitzenero, 20:00etan

ginen eta, aurten, 120 ikusle da media. Egun batzuetan aretoa bete da, eta ia 250 eserleku dauzka. Badago zaletasuna eta jendeari kalitate oneko gauzak ematen dizkiozunean erantzuten du.

—**Zer irizpideguz aukeratzen dituzte proiektatu beharreko filmak?**

—Zine jaialdietan ipintzen dut begirada, baina kritikari asko erreparatzen diot. Hori interesgarria bada filma ikusten dut, eta, egokia irudituz gero, Zineforumera

eroaten dut. Aurten, berbarako, interesatu zait Afganistan, Iran eta inguruko zinema erakustea, izan ere, gertatu dena kontatzeko balio du zinemak: jendartearen isla da eta aretoetan oihartzunik ez daukaten baina interesgarriak diren filmak eskaintzea gustuko dut, baita zinemagintza ohikoa ez den herrietakoa ere. Hemengo zuzendarien filmak ere eman ditugu: garrantzitsua da ikusleagoak eza gutzea bere herrian egiten dena. ○

Lamiakoko jaiak ekainean

Aurten **jaiak atzeratu** dituzte: **maiatzaren 29tik ekainaren 3ra** ospatuko dituzte



Urtero legez, Maskarada antzeztuko dute barikuan, ekainaren 1ean

Urtero legez, ekitaldiz gainezka datoz Lamiakoko jaiak, baina aurten, astebete beranduago ospatuko dituzte. Beti egiten dituzte jaiak maiatzaren azken aste akabuan, baina, oraingoan, ekainaren lehen egunakaz batera izango dira: maiatzaren 29tik ekainaren 3ra.

Eguenean, maiatzaren 29an, San Maximo auzoko patroia omenezko meza egingo dute 20:00etan. Halere, jai hurrengo egunean hasiko da, barikuan. Arrastiko 16:30ean jaurtiko dute txupina eta laster hasiko da Maskarada; ohi legez, lehen eta bigarren zatiak antzeztuko dituzte 17:30etik aurrera. Beranduago, 20:00etan, Errekalde koralak abestuko du agertokian eta, 22:30ean, Maskarada-

ren hirugarren zatia antzeztuko dute trenbideaz bestaldera, Kultur Etxearen alboan. Gauean giroa alaituko du Lisker taldeak.

Aste akabuan ere hamaika ekimenean parte hartu ahal da. Zapatuan izango dira, besteak beste, umeentzako jolasak eta tailerrak, paella, tortilla eta tiragoma lehiaketak, futbito txapelketako finalerdiak eta finala, dantza erakustaldia, mozorro eta karaoke lehiaketak, Oliver magoaren ikuskizuna edota berbena Galker taldeagaz. Azkenik, domekan, Leioako Udala Abesbatzak kantatuko du, rana eta txapela jaurtiketa lehiaketak egingo dituzte, eta guatekea zein txokolate-jana izango dira. Ondo pasa jaietan! ○

FUTBOL KANPUSEAN IZENA EMATEA DAGO

Iñaki Saez udako futbol kanpusean parte hartzeko izena eman daiteke, bai campusverano@sdleioa.com helbidera mezua bidaliz, bai 675 533 528 telefonora deituz. Kanpua 5 eta 14 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago: “euren jokoa hobetzen dute udako oporretan eta futbolaren inguruko hainbat ariketa egiten dute, beti ere euskara ardatz”. Hiru taldetan banatuko dituzte umeak: lehena arituko da ekainaren 25etik 29ra, bigarrena uztailearen 2tik 6ra eta hirugarrena uztailearen 9tik 13ra. Goizez izango dira saioak, astelehenetik barikura. Gainera, bertaratzeko autobus zerbitzua egongo da, bai Uribe Kostatik, bai inguruko eskualdeetatik.

ARGAZKILARITZA IKASTAROA KALIANEN

Maiatzaren 14az geroztik argazkilaritza ikastaroa ematen ari dira Kalian Hiri Kultur Gunean, hasibarrientzat. Astelehenero elkartzen dira gaueko 20:30etik 22:00etara. Informazio gehiago edo parte hartu gura baduzu, eurek harremanetan ipin zaitezke elker@kalian.es helbidearen edo 647 417 888 telefonoaren bitartez. Leioako metro geltokiaren alboko eraikinean dago Kalian Hiri Kultur Gunea, sotoan.

Info+: www.kalian.es

LEIOAKO POP-ROCK LEHIAKETA: FINALISTAK

Leioako Pop-Rock lehiaketaren 12. edizioak badauzka finalistak. Metal modalitatean honako hauek izan dira finalerako hautatutakoak: Crownless (Madril), Steel Puppets (Barakaldo) eta Frequency (Albacete). Pop Rock modalitatean, barriz, finalean egongo dira The Pink Elephants (Barcelona), Krell (Astigarraga) eta The Glassphone (Jaen). Bestalde, sari bereziei dagokienez, euskarazko abestirik onena aukeratu dute Haxotz Bilboko taldearen 5 minutu, baina eman barik utzi dute *Leioako Udala* saria.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Alfonso Roman Guerrero > zapatagilea

“Zapatagilea da pieza bat edo zapata osoa egiten duena, eta horrelako oso gitxi geratzen gara”

Altzagako San Ignacio kalean dago ‘Calzados Roman’. Artisauak dira eta zapatak egiten dituzte. Horrelako langile gitxi lotzen da, eta lanez gainezka daude. Aitarengandik ikasi zuen ofizioa Alfonso Roman Guerrerok.

—Bertako bezeroez gain, eskaera asko kanpotik datoz, nolatan? Artisau gitxi zarete zapatagintzan?

—Bai, Bizkaian uste dut bakarrenetakoa ak garela. Ez dakit besterik dagoen, baina geu gara Osakidetzagaz hitzarmena egin da daukagun bakarrak. Gero eta eskaera gehiago daukagu, gainera.

—Horrenbestez, ez da gauza bera zapatari eta zapatagile?

—Gauza bat da zapatak konpontzen dituen, baina niretzat, zapatagilea da edozein piezatatik hasi eta zapata osoa egiten duena. Eta horien artean oso gitxi gara, Bizkaian bizpahiru. Beraz, lan handia daukagu. Orain arte hiru langile izan gara, baina laugarren bat hartu behar izan dugu eskaerari aurre egiteko. Krisi egoera honetan ez da txarra.

—Aitarengandik jaso zenuen ofizioa, belaunaldiz belaunaldi igaro da?

—Hala da, aitak irakatsi zidan ofizioa, bai niri, bai osabari; azken horrek duela egun batzuk hartu du erretiroa. Aitari,



Ibarra kaleko 7.ean dago denda, baina San Inazio kaletik sartzen da

barriz, aititek irakatsi zion, eta horretan darraigu hirugarren belaunaldikook. Ni 13 urtegezi hasi nintzen, eskolatik urtetean. Txapela kalean egon ginen 30 urtez, eta daborduko beste zazpi daroagu lokal honetan. Gainera, odolean daroat. Eta gustuko izan behar da, bestela ez genukeen honetan jardungo.

—Zelakoa behar du zapata on batek?

—Gero eta txarrago egiten dute, baina zapata onak izan behar du larruzkoa, larru ona, eta zola ere larruzkoa; zola go-

mazkoa izateko, ona izan behar du. Baina orain denak dira plastifikatuak edo kartoizkoak. Lehen askoz ere gehiago irauten zuten oinetakoak.

—Zelako zapatak egiten dituzue?

—Batez ere ortopedikoak eta enkarguz. Batzuek ere zapata normalak eskatzen dizkigute, baina neurri eta bezeroaren gustura egiten ditugu denak. Zenbaki oso txiki eta oso handiak ere egiten ditugu, baita larru ekologikoagaz ere, produktu kimikoei alergiaz dietenentzat. ○

Kontsumoa txikitu guran

Etxeko **olioa birziklatzen** laguntzeko **inbutuak banatzen** ari da Udala



Maiatzaren 25era arte jaso daitezke olio birziklatzen laguntzeko inbutuak

“**Ingurumena** zaintzea guztion parte-hartzea eskatzen duen zeregina da” Udalak dioenez, eta, horregatik, ingurumenaren zainkarako gomendioak batzen dituen dekalogoia helarazi du erandioztar guztien etxetara. Etxean energia eta kontsumoa aurrezteko neurri txikiak dira; izan ere, Udalak dioenez, “*herritarrek konturatu behar dute zenbait balore oso garrantzitsuak direla, besteak beste, birziklapena, murrizketa eta berreskileria*”.

Homa hemen gomendioetako batzuk: ez erabili berokuntza-sistemak bero izateko, baizik eta hotz ez izateko; erabili kontsumo txikiko lanparak; garbitu tresna

elektrikoaren saretak eta iragazkiak aldian-aldian; erabili A klaseko etxetresna elektrikoak; telebista eta ordenagailua 30 minututik gora ez badituzu erabiliko, itzali guztiz; ura zentzuz kontsumitu eta txorrota ez utzi zabalik alferrik; erabili garraio publikoa; erosketak egiterakoan poltsa eroan eta baztertu bilgarri asko daukaten produktuak; bereizi zaborra edukiontzietan; eta birziklatu etxeko olioak.

Azken zeregin horretan laguntzeko, hain zuzen ere, 9.000 inbutu banatuko ditu Udalak. Maiatzaren 25a baino lehen jaso daitezke Behargintzaren bulegoan eta Erandiogoiko Gizarte-Etxean. ○

MUSIKA ESKOLAN IZENA EMATEA DAGO EKAINEAN

Erandioko Musika Eskolan izena eman ahalko dute ikasle barriek ekainean, behin egungo ikasleentzako epea amaituta. Horrenbestez, datorren ikasturtean Musika Eskolan hasi gura dutenek ekainaren 1etik 15era eman dezakete izena. Horretarako, Musika Eskolara hurbil daitezke goizez, 10:00etatik 12:00etara (martitzenetan izan ezik) eta arrastiz, 17:00etatik 19:00etara (barikuetan izan ezik). Telefonoaren edota korreo elektronikoaren bitartez ere egin daitezke matrikula.

Matrikulatzeko: 944 170 776 edo meskola@erandioko-udala.net

IKASGELA ZABALIK ASTEBURUETAN, ASTRABUDUAN

Urtero legez eta maiatza eta ekaineko azterketak direla-eta, ikasteko gela zapatu eta domeketan zabalik dago Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Horrenbestez, ikasgela erabilgarri egongo da maiatzaren 27an, eta ekainaren 2 eta 3, 12 eta 13, 19 eta 20, 23 zein 24an. Salbuespen bakarra maiatzaren 26a izango da; egun horretan itxita egongo da.

MUSIKA ENTZUNALDIAK MAIATZ ETA EKAINEAN

Ikasturtea amaitzera doa eta Musika Eskolako ikasleek urtean ikasitakoa erakutsiko dute ikus-entzuleen aurrean, maiatz eta ekainean; Astrabuduko Kultur Etxeko Areto Nagusian egingo dituzte entzunaldiak. Maiatzaren 23an haizetresnetako ikasleak arituko dira, eta 28an zein 31n, gitarra-ikasleak; biak hasiko dira 19:00etan. Ekain akabuan ere hiru kontzertu egingo dituzte, hain zuzen, hilaren 20, 21 eta 22an, eta 19:30ean. Gainera, urtean zehar egindako beste entzunaldi batzuetan zein klaseetan ateratako argazkiak erakusketara osatu dute eta Kultur Etxeko erakusgelan ipiniko dute ikusgai; maiatzaren 31tik ekainaren 1era bisitatu ahalko da.



www.ukaldizkaria.biz

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

PINTXOZ PINTXO EKIMENA ABIAN JARRI DU UDALAK

Sopelako Udalak 'Sopela pintxoz pintxo' egitasmoa abian jarri barri du, herriko turismoa eta ostalaritza bultzatzeko asmoz. Ekimen barrizale honi esker, aurrerantzean Sopelako tabernetako pintxoak dastatzea errazagoa izango da herrira hurbiltzen diren lagunentzat. Turistek eta sopeloztarrek 6,60 euroren truke bonoa erosteko aukera izango dute; eta bono bakoitzak sei pintxo erosteko aukera emongo du (hau da, 6,60 euroren truke sei pintxo erosteko aukera egongo da). Horretarako, Sopelako Turismo Bulegora edo Informazio Gunera jo beharko dute. Bonoa asteleheneretik domekara erosi ahal izango da, maiatzetik urrira. Sopelako hamabi taberna gehitu dira ekimenera.

HIL ARTE BIZI ANTZERKIA MAIATZAREN 26AN

Lehen mailako antzezlanakaz jarraitzen dute Sopelan; maiatzaren 28an *Hil arte bizi* nagusientzako antzerkia helduko da. Adiskidetasunaren mugen inguruan hausnarketa egiten du antzerki honek. Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga dira lan honetako protagonistak, eta hiruren artean sortzen diren maitasun komerkiak kontatzen ditu. Hitzordua 20:30ean jarri dute, Kurtzio Kultur Etxean, sei euroren truke.

FANFARREA ATHLETIC-EN FINALA GIROTZEKO

Hainbat jarduera izango dira maiatzaren 25ean Sopelan, Athletic-ek jokatu duen finala girotzeko. 17:00etatik aurrera, udaletxe plazan, puzgarriak, jolas erraldoiak, futbolinak, Athletic-eko txapa tailerra eta euskal dantza tailerra egongo da. 19:00etatik aurrera, barriz, umeentzako erromeria hasiko da. Bestalde, 18:30etik 21:30era Ardoa Barrura fanfarrea ibiliko da Sopelako kaleak girotzen. Egunari txapela jartzeko, Athletic-ek Kopako finala irabaztea baino ez da falta!

Hasi prestatzen koadrilak!

Ekainaren 2an ospatuko da aurtengo Koadrila Eguna; **giro jatorra bermatua!**



Gero eta gazte gehiago alkartzen dira Koadrila Egunean

Gorritz markatutako eguna izango da ekainaren 2a Sopelako gazteriarentzat. Izan ere, egun horretan V. Koadrila Eguna ospatuko dute, Gazte Asanblada Sopeloztarrek antolatuta, eta urtero legez herriko koadrilak jai-giroan batu-ko dira.

Gazteek adierazi dutenez, Koadrila Eguna Sopelan urtez urtez errotzen ari den ospakizuna da, gero eta gehiago baitira jaitxora hurreratzen diren koadrilak. Bere helburua argia da: *“herriko koadrilak batzea, haien arteko harremanak sendotzeko eta aisialdi aske eta parte-*

hartzailea aldarrikatzeko”.

10:00etan hasiko da egitaraua. Gazteek martxa egingo dute kostaldean, LZP Lurralde Zatiko Planaren eraginak hurretik ezagutzeko. Hizlari bat izango da LZPren nondik norakoak azaltzeko. Horren ostean, indarbarritzeko herri-bazkaria egingo dute udaletxe plazan, 14:30ean. 16:00etan koadrilen arteko jolasak egingo dira, eta 19:00etan, barriz, poteo musikatua. Herri-bazkarirako txartelak aldeztatik erosi beharko dira, Plaza Beltza Kulturgunean eta Sekeko Gaztetxean. Gora bihotzak! ○

Silvia Carrascosa > krema eta sendagai natural tailerra

“Gure inguruan xaboi eta sendagai naturalak egiteko osagai guztiak ditugu”



Xaboiak egiteko ohitura zaharra berreskuratuko dute tailerlean

Aste Berdea antolatu du Sopelako Udalak ekainaren 6tik 8ra. Lehen egunean, 18:00etan, krema eta sendagai natural tailerra egongo da Kurtzio Kultur Etxean, EHNE sindikatuaren eskutik. Silvia Carrascosa romotarra izango da hizlaria.

—Tailerlean krema eta sendagai naturalak egiten irakatsiko duzue, ezta?

—Kasu honetan egun bakarreko saioa denez, tailerra baino berbaldi informatiboa dela esan dezakegu. Bertan jendeari irakatsiko diogu zelan aprobeitza daitezkeen gure inguruko baliabide naturalak sendagai eta kremak egiteko.

—Edozeinek egin ditzake etxeko sendagaiak?

—Bai, edozeinek egin ditzake. Azken batean sukaldaritza bezalakoa da: erreze-ta batzuk jarraitu behar dira, osagaiak ondo aukeratu eta azkenean prestatzeko modu egokia hautatu. Mundu guztiak egin dezakeen zer edo zer da. Hori bai, beharrezkoa da aldeztatik informa-

zioa jasotzea, landare zati guztiak erabiltzen ez direlako; zurtoinak adibidez ezau-garri batzuk ditu, loreak beste batzuk... Batzuetan, gainera, landare bati alergia izan ahal diogu.

—Gure arbasoek horrelako ukenduak erabiliko zituzten antzina...

—Bai, hori da. Tailerretan parte hartzen duten nagusiek azaltzen ditudan hainbat sendagai ezagutzen dituzte; San Juan ukendua berbarako. Xaboi ere beti egin izan da etxean, eta zahar askok oraindino

«Ohitura galtzen joan gara; egun kimikoak erabiltzen ditugu»

horrela egiten jarraitzen du. Azken urteetan ohitura hori galtzen joan gara; kimikoak eta osagai industrialak erabiltzen ditugu. Baina inguruan osagai eta landare natural guztiak ditugu, eta horiek ez dute ingurua kaltetzen; lasai asko erabili ditzakegu ibaian edo itsasoan, guztiak ekologikoak direlako. ○

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



www.ukaldizkaria.biz

WEBGUNE BARRIA DU BERANGOKO UDALAK

Webgunea barritu du Berangoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Biscaytik egitasmoaren baitan. Helbide berbera izaten jarraitzen du (www.berango.net) baina eduki gehiago ditu: besteak beste, izapide administratiboak internet bidez egiteko aukera eskainiko du laster, Udalaren arabera. Bestalde, udal-araudiak, dirulaguntzak eta udal bilkuretako aktak jasotzen ditu. Horretaz gain, *Berango Gaur* udal aldizkaria interneten irakurtzeko aukera eskaintzen du.

MUSIKA ESKOLAN IZENA EMOTEKO EPEA ZABALIK

Hurrengo ikasturtean Udak Musika Eskolan izena emoteko epea zabalik dago daborduko. Eskaerak udaletxean egin beharko dira, eta hiru ikastaro eskainiko dituzte: musika hizkuntza (hilean 28 euro), piano (hilean 24,5 euro) eta abesbatza (13 euro). Epea uztailaren 30era arte egongo da zabalik, eta izen-emateek eskaintako plazak gainditzekotan zozketa egingo da.

ACADAE TALDEAREN ANTZERKI-EMANALDIA

Maiatzaren 26an Antzerki Amateurraren I. Jaialdia ospatuko da Berango Antzokian, Santa Ana auzoan. ACADAE taldeak *El medico a palos* antzezlan komikoa aurkeztuko du, 19:00etatik aurrera. Sarrerak hiru euro balio du, eta alde zuzenetik eros daitezke Kultur Etxean.

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Herriko ardauaren eguna Ekainaren 9an ospatuko da hamabigarren urtez, txakolingileen ospakizun handia



22 txakolingileen ospakizunaren izena aldatu behar izan dute

Heldu da Berangoko txakolingileen egun handia! Aurtengo txakolinaren jaia ekainaren 9an ospatuko da, betiko legez, Sabino Arana kalean, Nagusien Etxe aurrean. Baina aurten, barritasun handi bat ere egongo da. Izan ere, izen-dapena aldatu behar izan dute ekoizle berangoztarrek. 'Txakolin Eguna' deitu beharrean, jaia 'Berangoko Arduaren Eguna' deituko da, 'txakolin' izendapenagaz arazoak izan dituztelako.

Izenak izen, XII. edizio honetan, betiko egitarau jatorrari eutsiko diote txakolingileen. Iaz legez, 22 batuko dira,

eta euren arabera, aurtengo uzta ez da batere txarra izan.

Ekainaren 9an, ardua dastatu gura duenak kopa erosi beharko du, lau euroren truke. Kopagaz, postu danetan txakolinaz gozatzeko aukera egongo da (gura beste), eta kopa etxera eroan ahal izango dute oroigarri gisa. Gainera, txixiburduntzi eta lukainka pintxoak ere egongo dira txakolinari laguntzeko.

Bestalde, eguna girotzeko txistulariak eta trikitilariak ibiliko dira postuetan. 15:00ak aldera amaituko dira ospakizunak, teoriar behintzat! ○

Iñigo Ezquerria > Plentziaclassic elkarteko kidea

"Ibilgailu klasikoaren bidez iraganari begiratzea gustatzen zaigu"



Ezquerriagaz batera 20 bat lagunek osatzen dute Plentziaclassic

Bost urte daroa Plentziaclassic elkarteak, maiatzaren laugarren domekan, ibilgailu klasiko-kontzentrazioa antolatzen. Aurten maiatzaren 27an Astillero plazan hitzordua izango dute zaletasun berezi horren jarraitzaileek, eta gu Iñigo Ezquerriagaz, elkarteko kideagaz, egon gara ekimenaren nondik-norakoak kontatu diezazkigun.

—Zenbat ibilgailu espero duzue aurten maiatzaren 27an?

—Beti ibilgailu asko espero ditugu, baina, ez dakigu inoiz zenbat; izan ere izen-ematea egunean bertan da. Aurten Athleticen kontuagaz eta gabarra atera behar dela-eta, ez dut uste horrek batere onurarik ekarriko digunik. Halere, jendetza etortzea espero dugu.

—Zenbat lekutan antolatu dituzue ibilgailuen kontzentrazioak?

—Orain bost urte hasi ginen maiatzaren azken asteburuan kontzentrazioak egi-

ten; hauek libreak dira, edozein etor daiteke-eta. Horrez gain, irailean monografikoak egiten ditugu, eta horietan 30 edo 40 bat ibilgailu batzen ditugu gai ezberdinen ingurukoak. Gainera, urtero egiten ditugun ekitaldi horiez gain Iru-neko ibilgailu-azokara joaten gara.

«Ezkutuan dagoen zaletasun handia dago Plentzian»

—Zaletasunik badago Plentzian?

—Ezagutzen ez genuen zaletasun handia dago. Nahi gabe, sarri, zaletasun hori ezagutzen duzu; lagunaren arrebak ibilgailu klasikoak dauka, baita auzokideak ere.

—Zer ekarpen egiten dizue zaletasun horrek, zelan bizi duzue?

—Malenkonia sentitzen dugu ibilgailu horiek ikusita. Iragana horien bitartez ezagutzea gustatzen zaigu-eta. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialia
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Zure publizitatea HEMEN

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



URDULIZKO UDALA IRAGANAREN BILA

Urdulizko Udalak Eusko Ikaskuntzagaz egin duen hitzarmenak herriaren iragana berreskuratzeko ahalegina izan gura du. Izan ere, hitzarmen horren xedea ikerketa historikoa egitea da; XIX. eta XX. mendeko herriko historia berreskuratzeko asmoz. Ikerketen iraupena urtebetekoa izatea espero dute, eta ostean, azterketa guztietan lortutako informazioa liburu batean argitaratuko ei dute.

EUSKARA SUSTATZEKO UDALEKUAK LEMOIZEN

Hiru eta hamabi urte bitarteko 35 umek parte hartu ahalko dute Lemoizen antolatutako diren udaleku irekietan. Ekainaren 25etik uztailaren 20ra iraungo dute udalekuak, eta horien helburu nagusia euskara umeen eremuan sustatzea izango da; izan ere, alkatearen iritziz "Gure asmoa hauxe da: normalean, umeek gaztelaniaz egiten dituzten ekintzak euskaraz egin ditzaten".

PLENTZIAKO ALDE ZAHARRA BARRITZEKO BIDEAN

Plentziako Udala alde zaharra barritzeko lehenengo pausoak emoten dabil. Horrela, hilabete akabuko udalbatzan barrikuntza egiteko arauak argitaratuko dituzte, baita egin beharreko erreformak ere. Plan horren bidez herriko alderik eta enblematikoan zaindu eta erreformatu gura dituzte.


aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Urduliz

Basartena film labur jaialdian parte- hartzeko aukera maiatzaren 31ra arte



On the line film laburra izan zen iazko lehiaketan irabazle

Film laburren egileei zein zaleei Basartena laburmetraia jaialdian parte hartzeko aukera heldu zaie. Aurten ere, azken urteetan legez, Patxi Lazkano Basartek, hainbaten laguntzagaz batera, jaialdia antolatzeari ekin dio. Horrela, arlo horretan zaletuak direnek maiatzaren 31ra arte, beraien obra Basartena tabernara bidaltzeko aukera izango dute. Partaide bakoitzak aukera izango du gehienez obra bi bidaltzeko; film laburrak DVD formatuan sortu beharko dituzte, eta lanek ezin izango dute 25 minutu baino gehiago iraun, gutxiago bai, ostera.

Aurtengoa, V. jaialdia da, hain zuzen, eta aurrekoetan izandako besteko parte-hartzea espero dute antolatzaileek eta parte-hartzaileek ere. Iaz, izan ere, 192 film labur aurkeztu zituzten lehiaketara. Oraingoan, ostera, hori gainditzea espero dute.

Aurkeztu dituzten obra horiek guz-

tiak baloratzeko bost aditu ibiliko dira epaile lanetan; besteak beste, hurrengok osatuko dute epaimahaia: Koldo Serra, Borja Crespo, Aitor Elorriaga, Amaia Nerekan eta Patxi Urkijo. Uztailaren 28an egingo duten ekitaldian ezagutuko ditugu irabazleak. Gainera,

Aurten jaialdiaren V. edizioa da, eta inoiz baino partaide gehiago espero dute

filmak ikusteko aukera izango dute egun horretan bertaratutakoek. Aurten, partaideek lau sari lortu ahal izango dituzte; fikziozko film labur onena, animazio laburra, Euskal Herriko zinemaskola film laburra, eta, azkenik, Euskarazko film onenaren saria, azken hau kategoria barria da. Horrenbestez, film labur zalea izanez gero, hortxe duzu, zure lana plazaratzeko aukera!

Info+: www.basartena.com

Mai. 22 - Eka. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

SOPELA

► 'Malaire, Viaje a Kinshasa'. **Medicus Mundi** elkarteak. Maiatzaren 31ra arte. Kurtzio Kultur Etxean.

PLENTZIA

► Araldiko tailerretako **margolanak**. Maiatzaren 31ra arte. Goñi Portalen.

ANTZERKIA

GETXO

► **Ipuin kontaketa**. Maiatzak 24, 18:00etan. Gobelako haur-liburutegian.

► **Gente guapa, gente importante**. Maiatzak 26, 19:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 3 euro.

BERANGO

► **El medico a palos. Antzerki Amateurraren I. Jaialdia**. Maiatzak 26, 19:00etan. Berango Antzokian. 3 euro.

GORLIZ

► **Ipuin kontalaria**. Maiatzak 26, 18:30ean. Teresianon.

SOPELA

► **Hil arte bizi**. Maiatzak 26, 20:30ean. Kurtzio Kultur Etxean. 6 euro.

ERANDIO

► **Las Gallegas**. Maiatzak 26, 20:30ean. Altzagako azoka zaharrean. 5 euro.

► **Ipuin kontalaria**. Maiatzak 30, 18:00etan. Astrabuduko liburutegian.

LEIOA

► **Lamiako Maskarada**. Ekainak 1, 17:30ean eta 22:00etan. Lamiakon.



Uribe Kostako egungo txapeliduna da Jone Uria Albizuri algortarra

► Bertsolaritza

Uribe Kostako bertso-finala, ekainaren 2an

Hasi dira eskualde mailako kanporaketak: Bizkaiko Bertsolari Txapelketa jokatuko da udazkenean eta eskualdeka hautatuko dituzte parte-hartzaileak. Gurean 12 bertsolarik hasi zuten norgehiagoka: Peio Arondo, Arrate Illaro, Itxaso Paia, Daniel de Miguel, Arkaitz Gomez, Josu Landeta, Imanol Uria, Aitzol de Kastro, Iñigo Kortazar, Pello Etxebarria, Gabi Basañez eta Ekaitz Larrazabal *Katxo*. Saio bi egin dira eta, onenek, finala jokatuko dute ekainaren 2an, Getxoko Villamonte Kultur Etxean. Arrastiko 17:30ean hasiko da saioa eta sarrera doakoa izango da. Informazio gehiago gura baduzu ALBEgaz harremanetan ipin zaitzke: albegetxo@gmail.com.

• **Non:** Villamonte Kultur Etxean • **Noiz:** Ekainaren 2an, 17:30ean

ZINEMA

LEIOA

► **Un mundo casi perfecto**. Maiatzak 22, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.

GETXO

► **The Artist**. Maiatzak 25, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.

► **Lorax: En busca de la trufula perdida**. Maiatzak 27, 17:00etan. Areetako Musika Eskolan. 2,10 euro.

MUSIKA

GETXO

► **Bikoitzen acuaticos**. Maiatzak 24, 20:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben. Doan.

► **Gintonic**. Maiatzak 31, 20:00etan. Algortako Usategi tabernan. Doan.

GORLIZ

► **Erromeria (Euskal Jaia)**. Maiatzak 26, 20:00etan. Ibarreta plazan.

ERANDIO

► **Dantzaldia orkestragaz**. Maiatzak 27, 17:30ean. Altzagako azoka zaharrean.

PLENTZIA

► **Diskofesta**. Maiatzak 31, 17:30ean. Ontziola plazan.

BESTEAK

GETXO

► **Eskulangintza azoka**. Maiatzaren 25etik 27ra. Areetako Geltokia plazan.

► **Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa**. Maiatzaren 31tik ekainaren 3ra. Algortako Geltokia plazan.

URDULIZ

► **Euskeraz olgetan**. Maiatzak 25, 17:30ean. Antsonekoa plazan (euria bada probalekuan).

ERANDIO

► **Sexu-aholkularitza**. Maiatzak 25, 18:00etatik 20:00etara. Gazte Informazio Bulegoan.

LEMOIZ

► **Euskeraz olgetan**. Maiatzak 28, 17:00etan. Urizar eskolan.

BARRIKA

► **Libroforum**. Maiatzak 28, 18:30ean. Udal liburutegian.

SOPELA

► **Agroekologiari buruzko formakuntza tailerra**. Maiatzak 29, 17:00etan. Plaza Beltza kulturgunean.

PLENTZIA

► **Kantaguneren aurkezpena**. Ekainak 8, 20:00etan. Goñi Portalen.
► **Folklore topaketa**. Ekainak 2. 12:00etan mahaingurua Goñi Portalen eta 18:00etan erromeria Ontziola plazan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Altxa gaztiak!!!

Lezamatik kanpo ere harrobi itzela dauka Athletic-ek. Zenbat eta zenbat ume (zaletu danak ez ete dira umetu?) ibili zen maiatzaren 9an kamiseta zurigorria jantzita euren taldea bultzatzen! Ezbai barik, Athleticen aurtengo denboraldia itzela izan da, edonor harrotzeko modukoa! Azken gingaren esperoan... oster, gomendiotxo bat: iturri horretatik edaten duenak ordain beza, inor itoarazi eta edan ez duena ordainaraztera derrigortu barik.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Futbolean Plentzian

iraganeko gure
futbol-zaleak

Joan den mendean horrela jolasten ei ziren futbolean plentziarrak. Garai hartan, akaso, Athletic-zale ere izango ziren; antza, haiek txikitasunaren handitasunagaz nahikoa zuten ondo pasatzeko; oinetako zein jantzi apropos barik, harea nagusi zen zelaian, baloi ziztrinari ostikoak emoten igarotzen zuten-eta denbora. Gaur, oster, ez da lotzen behin, bat-batean, egindako zelaiaren aztarnarik, etxeek lekua hartu baitiote; ez ei da lotzen, gurean ere, txikitasunak zein sinpletasunak sortu ohi zuten zirrara. Honako argazkia, baina, zirrara horren lekuko da; ezeretik zerbait sortzea, gaitza baino, samurra da-eta.

[berbetan]

Zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurten 1986an sortutako Urtxintxa Eskolak, “astialdiko trebakuntzarako eta suspertze soziokulturalerako erakundeak”. Urtean 10-12 begirale-ikastaro antolatzen ditu Eskolak, 300 bat lagunentzako, eta horiei bestelako ikastaroetako jendea eta lan-taldeetakoak gehituz gero, 500dik gora lagun pasatzen da urtero Urtxintxatik. Orain Barrikan bizi den Asier Bilbao (Sopela, 1974) eta Ondiz Barandalla (Sopela, 1986) urtxintxakideakaz berba egin dugu aisialdiko hezkuntzaren garrantziaz eta Eskolaz beraz. Bilbaok 14 urte daroa Urtxintxan, orain Zuzendaritzako kide da, eta Barandallak 5 urte, orain Trebakuntza eta Kulturartekotasuneko arduraduna da. Ahaztu orduko, zorionak!

Ondiz Barandalla Asier Bilbao

Urtxintxa Eskola hazten, aisian hezten

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zer da Urtxintxa? Zertarako eta zergatik sortu zen?

—Urtxintxa sortu zenean, batez ere, auzoetan eta herrietan zeuden aisialdi zein auzo elkarteei trebakuntza, marko teorikoa emoteko. Garai hartan elkarte nahikotxo zegoen, batez ere Elizaren inguruan antolatutakoak asko... Orduan, beste erreferente bat beharrezkoa zela ikusi zen, Elizatik kanpokoa, alderdi politiko edo sigletatik kanpo zegoena, eta Euskal Herria aitortzen eta aintzat hartzen zuena. Hasierako egitekoa begirale ikastaroen inguruan oinarritu zen. Garai hartan Jaurlaritzak aisialdi-eskolen dekretua ere onartu zuten, alor hori erregularizatu egin zen... Ikusi zen hori egon behar zela; batez ere, ez zegoen esparru bat betetzeko, eta gizartearen bazegoen errealitatea mahai gainean ipintzeko ere bai. Hasikeran, lehenengo urteetan, begirale ikastaroak egiten ziren, gero ikastaro monografikoak ere bai: Euskal Herriaren historia, elkartegintza, bilera-dinamizazioa

e.a.; elkarteen funtzionamendua errazteko edo, eta lana egituratzeko...

—Urtxintxa, oro har, aipatutako begirale ikastaroek egin dute ezagun, baina urteotan eskaintzak gora egin eta aberatsagoa eta anitzagoa da, ezta?

—Aisialdi Eskola eta gero, suspertze soziokulturaleko arloa sortu zen; bazegoen orduan animazio soziokulturala deitzen zena,

indar itzela izan zuten, berbarako: garai batean hezkidetzaren zeritzonak, gaur Aukera Berdintasuna edo feminismo taldea... Gaia jorratzen joan zen, eta ikastaroak emoten bai hezkuntza ez-formalean (aisialdian), baita hezkuntza formalean (ikastetxetan; irakasleakaz, ikasleakaz) ere. Gero, Euskara arloa sortu zen, gero Kulturartekotasuna, eta orain Heziketa Premia bereziak, inklu-

“Aisialdian lantzeko, balio hezitzaileetan sinesten dugu, balioetan oinarritutako hezkuntzan”

eta horren inguruan beste dekretu bat sortu zuten, eta hori ere arautu egin zen. Orduan, suspertze soziokulturala ere emoten hasi ginen; orain beste izen bat du... Kontua da, aintzatespen hori lortuta, azkenean, begirale ikastaroetan zein suspertze-eskolan emoten ziren gaiak arloka antolatu zirela, azpitaldeka, eta horietako bakoitzak garapen ezberdinak izan zituzten, batzuek

sioa edo Parte-hartzea... Hau da, begirale ikastaroen eta elkarteei emon zaizkien ikastaro finkoen haritik, gaur egun hiru ardatz nagusi (laugarrena ere abian) ditugu: Euskara, Aukera Berdintasuna eta Kulturartekotasuna. Trebakuntza eskaintzen du, bai hezkuntza ez-formalean zein formalean, maila guztietan, bigarren hezkuntzan ere bai; hainbat programa daude, adib.:



gazteenakaz (DBH), indarkeria prebenitzeko tailerrak, txikitxoena ipuin bidez, jolas-operatibo bidez... Azken finean, guk balio hezitzailetan sinesten dugu, balioetan oinarritutako hezkuntzan.

—**Eskolaren ardatz gorena da aisialdia hezkuntza-gune dela.**

—Behar bezala aintzatetsi ez den alorra da. Hezkuntza formala oso egituratuta dago, eta inork ez du zalantzan ipintzen daukan garrantzia, baina bada ere beste alor bat, pertsonen bizitzan garrantzitsua dena, aisia, gure betebeharratik kanpo daukagun denbora hori, guk gura dugun moduan, denbora hori zertan emon guk aukeratzen duguna... Eta denbora hori hezitzailea izan daiteke, gure garapenerako, besteakaz harremantzeko, ikasteko e.a. Eta adin guztietan oso garrantzitsua den esparrua da; guk lan gehiago egiten dugu haur-gaztetxoakaz, baina adin guztietako pertsona danentzat oso garrantzitsua den esparrua da, gura duguna lantzeko.

—**Urteotako balorazioan, zeintzuk dira Urtxintxak gizarteari egin dizkion ekarpenak?**

—Bata izan daiteke Urtxintxaren egitura bera; Eskolatik kanpo gertatzen dena, Eskolak emoten duen trebakuntza edo dituen programetaz gain, Urtxintxa Eskolaren egitura baliozkoa dela uste dut, lan-talde asko daudelako, jende askok parte hartzen duelako, ideologia askotakoak, talde anitzak, leku ezberdinetakoak e.a. Azken finean, esparru bat zabaltzen da, eztabaidagune bat, nahiko bizia, mugimenduan dagoena, eta urteetan mantentzen dena, jende ezberdinak mantentzen duena piztuta... Halaber, sortutako programak, baten bat aipatzearen: aisialdia euskaraz bizitzeko... hau da, gure ekarpena aisialdiaren munduan, aisialdi ofizialean, euskara izan da; euskaraz garatzea, ez bakarrik trebakuntza, baizik eta atera ditugun balia bide eta bitarteko pedagogiko danak (argitalpenak, liburuak, jolasak, material didaktikoa e.a.). Azken finean, aisialdian Euskal Herrian egon den ekarpena, zentzu horretan, Urtxintxak egin du. Gero, Aukera Berdintasunean egindako lana ere bai; gai

hori jorratzen lehenengo eskola izan ginen, begiraleakaz lantzen, ostean ikastetxeetan. Besteren bat ahazten dut... Kulturartekotasuna denbora gitxiaren daroan arloa da, barriagoa... Euskaraz lan egiten dugu, egiten ditugun egitasmo danak euskaraz dira; eta zaila da gaur egun, eskaintza handia egon litekeen arren, horrelakoak euskaraz lortzea. Begiraleek ez ezik, hezitzaileek ere, eskertzen

“Gabonetan aisialdi hezitzailea eta euskalduna eskaintzeko egitasmoa, Kulunkan, martxan ipiniko dugu”

dute, eta aipatzen dute materiala ona dena, euskaraz gainera, eta gai hauek lantzen dituenak! Ez delako erraza horrelakoak lortzea...

—**Urteotan Eskolara hurreratu den jendearengan aldaketarik antzematen duzue?**

—Bai, onerako eta txarrerako. Ni —Bilbao-Eskolan hasi nintzenean, nik ez nuen Urtxintxa ezagutzen, lanerako sartu nintzen; eta asko harritu ninduen egiten ziren ikastaroetan parte hartzen zuen jendearen perfilak. Denek parte hartzen zuten auzo edo herrietako aisialdi taldeetan, edo talde ekologistan, edo antimilitaristan edo... Jende oso aktiboa zen! Ni Sopolako elkarte batetik nindoan, eta galdetu zidatenean ea esperientziarik nuen suspertze soziokulturalen, ezetz esan nuen; baina talde batean parte hartzen nuela esan nienean, talde antimilitarista batean, eta kultur-ekintzak egiten

“Gurasoak datozkigu, “nire semeak...”, bada dei dezala zure semeak 20 urte ditu-eta! Orain 14 urte ez zen emoten!

genitueta eta... Orduan, esperientzia banuela esan zidaten; eta nik “A! Hori bada!” Noski, niretzat garai hartan, marko teorikoa eta beste dena ezezaguna zen, eta ingurukoengan maila itzela igartzen nuen... Azken finean, herrietako eragileak zirelako, erreferenteak asko, arlo jakinetan asko mugitzen jendea. Pertsona oso autonomoak ziren, ini-

ziatiba handikoak! Ostera, nire iritzi, orain... begirale ikastaroa egiten doan jendea “umeagoa”-edo da; zelan esan, ez dela... Agian parte hartzen duen jendea da, baina ez maila berean, hau da, lehen ehuneko handi-handi batek parte hartzen zuen lekuan lekuko elkartetan-eta, orain ez... Orain, gurasoak etortzen dira seme-alabak matrikulatzera! Eta lanen bat errepikatu

behar badute, edo arazoren bat dagoenean gurasoak etortzen zaizkigu; hori orain dela 14 urte ez zen aukera bat, ezinezkoa zen, ez zen emoten. Orain gurasoak datozkigu, “nire semeak...”, bada dei dezala zure semeak 20 urte ditu-eta! Horrez gainera, ni —Barandalla- bulegoan nago, orain arte kanpoan egon naiz, ikastaroak eta jasotzen; eta egia da, jendea beste lekuren batean lanean, bestelako batzarretan, beste elkareren batean topatzen duzunean, urtxintxakideak batzen zarenean beste arrazoiren batengatik... igartzen dela, ez kasu guztietan, baina askotan bai, erabiltzen den metodologia, niretzat oso esanguratsua izan dena; oso dinamikoa delako, parte hartzea eragiten duelako... Ikastarora doan pertsonak berak eraikitzen du guztia, eta gainera, etxera bueltatzen da galdera piloagaz... Onerako

zein txarrerako, Urtxintxa zigitua ipinita dugula igartzen zaigu.

—**Begirale andana gizarteratu dituzue, askok ordainpeko lanetan jardungo du, ostera boluntario andana badira, asteburuetan, euren denbora librea, doan, musu truk, ume-gazteakaz pasatzen emoten dute.**

—Denetik dago. Bada zuzenean *chip* horre-

gaz datorrena, “*ikastaroa egin nahi dut, bada-kidalako udan lana edukiko dudala...*”, beraz, badago kopuru bat horrelako ikuspuntua duena... Baina, badago beste jende asko, bestelako dena; eta gaur egun, oraindik aisialdi talde barri asko sortzen dabilta. Dibertsifikazioa ere gertatu da, euskara talde askok ere horrelako gauzak egiten dituzte, eta euskara talde askotan ere mugimendua dago...

“Aisialdi ekintza legez, Bakearen kontua zelan garatu ahal den lantzen ahaleginduko gara...”

—**Aisialdi taldeei dagokienez, bai kopuruan, bai bestelakoetan, aldaketarik nabari duzue?**

—Uste dut —Bilbao- orain baikorrak izan behar dugula. Gainera, oraintsu legezatu da federazio bat, Urtxintxa partaide da, beste 11 elkartegaz batera; modu batean, aisialdi hezitzailea euskaraz bultzatzeko... Gero, euskara taldeak ere badira, Topagunea ere bai, Elizak bere taldeak dauzka, beste eskola batzuek euren koordinakunde e.a. Ez da txarra hainbeste eta ezberdinak egotea. Datozen garaio-tarako, orokorrean begiratzat gero, positiboa da! Eta aurrera egingo dela uste dut.

—**25. urteurrena ospatzeko jardunaldiak eta jaia antolatu dituzue ekainaren 8rako eta 9rako. Zer zabilzate prestatzen?**

—Batetik, gure lana gizarteratu gura izan dugu; komunikazio kanpainatxo egin dugu, iritzi artikulatuak-eta plazaratuz, gure ikuspuntua jakitera emon e.a. Jardunaldietarako beste erronka bat dugu, bakearen gaiarena. Oraintsu ekingo diogu gai horri, Jardu-

naldiak horretarako aurkezpena izango dira. Hau da, gaia mahai gainean ipini gura dugu; hainbat naziotako esperientziak jorratuko dira... Inolako ideia ezta asmo barik, gura duguna da gaia mahai gainean ipini, eztabidatu; aisialdi ekintza legez hartuta Bakearen kontua zelan garatu ahal den lantzen ahaleginduko gara. Jakinda Euskal Herrian, gaur egun, egoera zelakoa den, landu beharrekoa dela uste dugulako; memoriaren gaia ere bai e.a. Mahai inguruak, lan-taldeen eztabaidak, gune irekiak egongo dira parte hartzea sustatzeko e.a. Ez duguna gura da asko ei

dakien jendea berbetarako ekarri. Gaiarekiko beldurrak, tabuak eta delakoak kentzeko, gaia mahai gainera eroan gura dugu; eta geuk ere mahai horretan egon gura dugu, badugulako zer esan, jendeak ere baduelako zer esan! Ez da bakarrik nazio arazoa mahai gainean jarri gura duguna, azkenean, gatazka esparru danetan da, hizkuntza gatazketan, sexu-gatazketan, kulturalak, etnikoak e.a. Aisialdia bali dezakegularako gatazka egoera desberditan bata besteari hurbildu, komunikazioa erraztu, konfiantza sortu, aurkariak ezagutu, errealitate ezberdinak ezagutzeko e.a. Aisialdia nahita egiten dugun esparrua delako, gozamenerako dena, eta kontzienteki jorratzen badugu, oso aprobetxagarria den gunea da. Gure lanari ere garrantzia emon gura diogu, eta aisialdia aldarrikatu gauzak garatzeko gune legez, gizartearen bere balioa baduela. Ostera, Urtxintxa ez da bakarrik trebakuntza, ikastaroak-eta, dinamizazioa ere bada! Jardunaldiez gain, haur-gazteentzako eskaintza ere egongo da: jolasak, tailerrak e.a. Zapatuan urtxintxakideen, Eskolagaz lotura izan dutenen, bazkarira denok daude gonbidatuta; eta amaitzeko, kontzertuak. Aisialdi “ez-kontzientea” ere garrantzitsua da batzuetan (kar, kar, kar). ○

Egitasmoak eta erronkak, eurrera begira

—**25 urte orain, aurrerantzean zer? Egitasmoak, eginbeharrak, erronkak...**

—Askotan jorratu beharrekoak mahai gainean ipintzen ditugu, baina gero lantzeko denborarik... Orain, parte hartzea eta inklusioa jorratzen hasi gara; ingurumenaren gaia beti hor dago, baina oraindino ez diogu heltzen... Orain, horiek dira erronkak: inklusioaren arloa sortzea, eta parte hartzearena... Proiektutxo batzuk baditugu esku artean, ikasten gure ere bai!!! Hori indartu gura dugu. Bestalde, beste eragile batzuekaz komunean ere, aipatu dugun aisialdi taldeen federakundeaz aparte, Amarauna, erronka ere badena, hurrengo Gabone-

tarako Kulunkan egitasmoa ere badugu. Kulunkan guretzat apostu handia da, eragile piloak elkartzen ari gara... Gabonetan aisialdi hezitzailea eta euskalduna eskaintzeko egitasmoa da, montaje nahiko indartsua da, Durangon egingo dena, adin guztietako haur eta gazteentzat, gurasoentzat, aitite-amamentzat, familiarentzat, euskara hutsean eta benetako balioetan oinarrituta...!! Parte hartzaileak benetako subjektu legez hartuta, eta ez bertara joan, barrakan montatu eta opari bategaz etxera itzultzea; horri guztiari buelta bat emonda, benetako aukera hezitzailea eskainiz. Horretan gabilta, eta positiboa da prozesu parte hartzaile-

lea delako, eragile piloak inplikatzeko gabiltzalako, Euskal Herri mailakoak, sare polita osatzen gabilta... Ez dakigu zelan urtengo dan, baina horren aldeko apostua egin dugu, eta bide horretan gabilta.

—**Uribe Kostan egitasmorik bai?**

—Bai! Alde batetik, Getxon, Eraldatzen programa garatzen gabilta, uste dut ikastetxe guztietan; gazteengan indarkeria sexista prebenitzeko saioak, tailerrak dira. Urte nahikotxo daroagu, horregaz, Getxon, 4-5 urte bai. Bestetik, Sopolan eta Urdulizen, euskara indartzeko saioak ditugu. Egon dira beste batzuk, baina orain horiekaz gabilta.



Gure inguruaren xarma

Natxo Pedrosa argazkilari sopoloztarrak urteak daramatza gure ingurua irudi bihurtzen. Paisaiek ez ezik, elementu industrialek ere egundoko presentzia daukate obra osoan; industriak sor ditzakeen irudi harrigarrienak bat-batean harrapatuta, orrialdeotan ikus ditzakezunak, bakan batzuk baino ez dira. Ezustean ateratako uneak, zein burdinak burdinaren kontra sortutako txinpartak dira, besteak beste, Pedrosaren obraren protagonista.

Argazkiak: **Natxo Pedrosa**
<http://natxopedrosa.wordpress.com/>





Zero zabor ekimena > Uribe Kostara ere iritsi da oihartzuna

Zaborraren eztabaida puri-purian: Zero Zabor taldeak biderkatuz doaz

Birziklapena, atez ateko bilketa, bosgarren edukiontzia... Zer egin zaborragaz? Zelan sortu zabor gitxiago? Alternatibak sortzeko helburua dauka Zero Zabor mugimenduak. Apurka indartuz doa munduan, baita gurean ere.

Eguneroko jardunean erabili behar diren materialak alferrik galdu eta elementu kutsakor bihurtzen ez uztea da Zero Zabor mugimenduaren helburua. Nola iritsi egoera horretara? Bada, *“produktuak berrerabili eta birziklatzeko diseinatu, eta baldintza betetzen ez duten produktuentzako bi aukera utziz: produktua berdiseinatzea edo sistematik at uztea”*. Horrela laburbiltzen du filosofia hau Gipuzkoa Zero Zabor ekimenak. Maia-

tzean parte hartu du Europako Zero Zabor mugimenduak Donostian burutu jardunaldietan, Euskal Herriko beste hainbat taldek bezala.

Egia esan, gurean aspaldi hasi ginen birziklatzen, baina gauza asko oraindik zabortegira doa, tartean materia organikoa. Hori birziklatzeko, lehenik, aparte bildu behar da, eta hainbat tokitan ipini dute zaramarako bosgarren edukiontzia; Bizkaian laster egingo dute. Halere, birziklapen handiagoa lortu arren, zaborrik ez sortzeko planteamendu desberdina behar da. Horixe defendatzen du Zero Zabor mugimenduak.

Gipuzkoako herri batzuetan alternatibak abiatu dituzte: berbarako, zaborraren atez ateko bilketa. Baina badago aukera gehiago, eta, funtsean, zaborra sortzen uzteko helburura iristeko bideak jo-

rratzea da Zero Zabor ekimenaren zeregina. Eztabaida badago eta sortzen ari dira haren aldeko mugimenduak hainbat hemen; baita Uribe Kostan ere.

Horiek azaltzen dutenez, hemen, zaborraren kudeaketa egiten da gaur

“Zaborra ez sortzeko sistema zirkularra: hondakin sorrera murriztu, materialak berrerabili, birziklatu”

egun, sistema-linealaren bitartez: ustiatu-kontsumitu-bota, oso gitxi birziklatu eta zaborra pilatzen da ohiko zabortegietan. Pilaketa horri irtenbide gisa planteatu ei ziren erraustegiak, baina sistema hori ere arbuiatzen du Zero Zabor mugimenduak: *“Arazo bat beste arazo baten-*



Materia organikoa biltzeko edukiontzia laster ipiniko ei dute Bizkaian

gatik aldatu besterik ez du egiten”. Izan ere, berrerabilgarriak diren materialak erretzen dira eta erreketaren ondorioz hondakinak geratzen dira oraindino, *“hondakinekin dagoen arazoa konpondu beharrea, hau da, zaborra sor ez dadin neurriak hartu beharrea”*.

Hain zuzen ere, zaborra ez sortzeko

bidea jorratzea da mugimenduak proposatzen duena, hots, sistema zirkularra: hondakin sorrera murriztu, materialak berrerabili eta birziklatu.

Baina zer egin birziklatu gabe geratzen den errefusarekin? Gaur egun sortzen den hondakinen %80tik gora gaika biltzea eta birziklatzea posible dela dio

mugimenduak: *“Geratzen den %10-%20 horri plastikoa, aluminioa, kartoia, beira, papera eta materia organikoa kendu dizkiogunez, ez da usteltzen eta ez du kiratsik botatzen”*.

Halere, ezin zabortegi batera bota eta orduan zer egin? Zero zaborrera iristeko, batetik, ikerketa egin behar da, geratzen den hondarra zerk osatzen duen jakiteko. Bigarrenik, azken bereizketa mekaniko baten bidez, errefusan bukatu duten material birziklagarriak berreskuratzen ei dira, errefusa are eta garbiagoa izan dadin. Azkenik, errefusak izan dezakeen materia organiko apurra egonkor-

“Posible da gaika biltzea eta birziklatzea gaur egun sortzen den hondakinen %80”

tzeko tratatu egiten ei da, eta, ostean, inerteentzako errefusategi batean utz daiteke: *“Zabortegi kutsakorrek ez bezala, ez du ez kiratsik, ez gas isuririk, ez eta lixibatu kutsakorrik eragiten”*.

Eztabaida mahaiaren gainean dago, orain bakoitzak erabaki dezala. ○

Naiara Elorriaga eta Sarai Pouso > Uribe Kostan Zero Zabor taldeko kideak

“Gure helburua da herritarrek erabaki dezatela zein bide erabili hondakinak gitxitzeko, eta, ahal bada, zerora iristeko”

—Uribe Kosta Zero Zabor taldea sortzen zabilzate, zergatik eta zertarako?

—Hondakinen oraingo kudeaketa-sistema ez delako egokia, gure ustez, eta beste zer edo zer bilatu behar da. Gipuzkoan martxan dago Zero Zabor mugimendua, eta gurean ere horretarako aukera dagoela uste dugu. Oraingoz Sopela, Plentzia eta Barrikako partaideak gaude. Dinamikarekin hasteko herri-rik egokiena Barrika dela uste genuen,

bere ezaugarriengatik: herri txikia, biztanle gitxi... Baina hemen oso gertu daude herriak bata bestearengandik eta jende guztiak dauka autoa; hortaz, erraza litzateke zaborra hartu eta alboko herrian botatzea. Horregatik, Uribe Kostako Mankomunitatetik hasi, baina eskualde osora zabaltzea da helburua.

—Eta zelan lor daiteke zaborraren kudeaketa hobea Uribe Kostan?

—Jende gehienak erlazionatzen du Zero

Zabor atez ateko bilketarekin, baina ez da horrela. Berez, atez atekoa bide bat da zero zaborrera heltzeko, baina ez da bide bakarra: munduan badago beste hainbat adibide. Gure helburua da herritarrak aukera dezala bidea hondakinak gitxitzeko, eta, ahal bada, zerora iristeko. Atez atekoa da azken pausoa, baina aurretik beste hainbat gauza dago: hondakin gitxiago sortu behar dugu lehenik. Gero berrerabili, ahal dela. Eta,

Uribe Kosta Zero Zabor taldearen sustatzaileak, Sopelan

azkenik, birziklatzea. Edukiontzi grisak, bertara dena bota daitekeen horiek, kendu beharko liriateke, hori da lehen gakoa. Herritarrei eta erakundeei begira lan egin behar da. Funtsezkoa da eztabaida sortzea, baina zentzuzkoa.

—Eta, Uribe Kostan, egingarria da?

—San Frantzisko, Canberra... Hiri handiek ere egiten dute, eta, beraz, Uribe Kostan ere posible da. Ekainean hitzaldiak egingo ditugu herriz herri. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Animaziozkoen zinemaldia

Animabasauri-Animabasque **zinemaldia**
hilaren 26tik 31ra Basaurin



Info+: www.animabasauri.com

Animabasauri Animabasque Nazioarteko Animazio Zinemaldiaren VIII. ekitaldia hilaren 26tik 31ra egingo da aurten. Barton Films-ek antolatzen duen (Basauriko Udala, Eusko Jaurlaritzaren eta ICAAren laguntza du, eta BBK-ren babesa) zinemaldia, oro har "zinea maite dutenei eta bereziki animaziozinezaleak direnei" begirakoa da. Basauritik antolatzen badute ere, film-emanaldiak udalerriko Sozial Antzokian eta Basozelain egiteaz gainera, hainbat ekitaldi antolatu dituzte beste leku batzuetan ere, Leioako EHuko campusean, Guggenheim Museoa, eta FNAC-en. Halaber, hilaren 28tik 31ra Sozial Antzokian, goizez, ikasleei zuzenduta, *Ka-*

tu bat Parisen, Malutatxo eta *Gartxot* euskarazko filmak emango dituzte.

Ohiko atalei dagokienez, 9 film luze lehiatuko dira (aipagarritzat dituzte *Ronald the barbarian*, *The great bear* daniarrak eta *Carthago Nova* espainiarra); 35 milimetroko 18 film labur (Frantzia, Mexiko, Kroazia, Suitza, Alemania, Ekuador, edo espainiar jatorriak); Karratu atalean 50 film labur (DVDean); Europar Eskolei begirako sailean Frantzia, Danimarka, Suitza eta EHuko ikasleen lanak izango dira ikusgai, e.a. Bestalde, VIII. ekitaldi honetako zinematografia-gonbidatua Afrikari lotutakoa izango da, besteak beste, *El viaje de Said*, *Rakire* edo *Ding Dong* filmak eta egiptiar jatorriko film labu-

«Afrikari lotutakoa da aurtengo zinematografia-gonbidatua»

rrak eskainiko dituzte. Horrez gainera, "ibilbide luze eta arrakastatsua" izan duten lanak ere ikusteko aukera eskainiko du zinemaldiak, esaterako Pedro Riveroren *Birdboy* eta Gregorio Muroren *Zeinek gehiago irauin*.

Halaber, animaziozko zinemari lotutako ekimenak ere egingo dituzte: tailerrak, berbaldiak, erakusketak e.a. o

Larrabetzifest prest

Garagardoaz gainera, musika taldeak arduratuko dira giroa berotzeaz **ekainaren 9an**



00:00etan hasiko da Itziarren Semeak taldearen kontzertua

Orain dela urte bi jaio zen Larrabetzu aldean Larrabetzifest jaialdia. Garagardoaren jaia da, eta aurtengo deialdia, hirugarren ekitaldia, ekainaren 9rako egin dute. Garagardoaren jaialdia da bai, baina musika barik ez luke perrexilik! Hala, garagardo gogoko izan ala ez, musikaz gozatzeko aukera eskaintzen du jaialdiak.

Patxi kooperatiba-sozietateak babestu eta Larrabetzuko Udalaren eta tabernarien laguntza jaso duen ekimenak "aurten aldaketa ugari barneratu" ei ditu eta, egitarauari erreparatu gero, ondorengoak dira iragarri dituzten emanaldiak: 21:00etan hasi-

ko da, Karramarro taldea lagun, poteo-batukada, gero, 23:30etik aurrera, Belako taldearen kontzertua egongo da (Gaztea merketa lehiaketako irabazlea) eta gauerdian Itziarren Semeak taldeak joko du; azken bi kontzertuok herriko plazan izango dira.

Gainera, Larrabetzufestera joateko garraio kontuak ez dira aitzakia izango, oraingoan; izan ere, besteak beste, Sopela, Urduliz eta Algortatik autobusa ipiniko dute (jesarlekua 3€ izena emon behar da). Amaitzeko, garagardo kañak 1,50€balioko du. o

Info+: www.patxi.coop edo [facebooken](https://www.facebook.com/patxi.coop)

lehiaketa > Bilbao Hiria

Bilbao Hiria Pop-Rock Lehiaketak 24. ekitaldia beteko du aurten, eta bertan izena emoteko epea hilaren 31n amaituko da. Ohi legez, 3 musika kategoriatan banatzen da lehiaketa: Pop-Rocka, Metala eta Beste Joera Batzuk. Lehiaketa entzutetsu bihurtu da azken urte-tan, eta sariei dagokienez, hurrengoak daude lehiari: 20.700 € baino gehiago; kontzertuak Bilbon (Aste Nagusian, Bilborock aretoan) eta beste jaialdi batzuetan ere (Azkena Rock Festival); musika tresnak irabazleentzat, e.a. Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol Sailak antolatzen duen lehiaketan lehenengo galbahea pasa ostean, 38 talde lehiatuko dira Bilborock Aretoan iraila-azaroa bitartean. Parte hartzeko baldintzak eta oinarriak hurrengo helbidean:

Info+: www.bilbao.net/bilborock

kontzertua > Bob Dylan Bilbon

Bilbao BBK Live jaialdiaren aurre-ekitaldi legez, eta Guggenheim Museoa 15. urteurrenaren harira, artista estatubatuarrrak, kontzertua emongo du museoaren aurreko zabaldegian uztailearen 11n. Askotxo geratzen da, halere baino 5.000 lagunentzako lekua egongo ez denez, eta sarrerak daborduko salgai daudenez, hobe arin ibili! 30 disko plazaratu dituen 70 urteko Dylanen emanaldiaz gozatzeko aukera bi daude: zutunik ikusteko sarrerak 45 euro balio du eta jesarlekukoak (500 leku) 85 euro (erabileran anitzeko kutxazinetan -eta webguretan-, FNAC, El Corte Ingles e.a.)

diskoak

Iglu bat basamortuan
Lauroba
Elkar



Ohi legez, melodiaren nagusitasunari fidel, rock, pop eta power-pop doinuez jantzi du talde gipuzkoarrak hirugarren lana. Hainbat estilotako hamahiru abestik osatzen du diskoa; eta letretarako zenbait kolaborazio izan ditu boskoteak, besteak beste: Harkaitz Cano, Itziar Ituño, Beñat Gaztelumendi eta Rafa Cabeza.

Tximinotan
The Uski's
Baga-Biga



Elantxobe-lbarrangeluko taldeak laugarren lana plazaratu du, adierazi dutenez: "abiadura aldetik bi alde ditu: batetik, zitu bizian doazen rock & roll abestiak, bestetik, doinu motelek hartzen duten balada kutsukoak". "Surf-rock"-etik asko urrundu barik, rockeroagoa da. Eta kontu, izenburuaren esangura: txipiroiak hartzera joatea.

Siempre soñe saber...
Hora Zulu
Kaiowas



Lau urteren ostean, rock, rap, metal eta flamenkoa uztartzen dituen taldeak lan barria plazaratu du: *Siempre soñe saber sobre, nadie nego nunca nada*. Garai bateko diskoak edo abestiak alderatuz gero, oraingo hau kontrastez betetakoa bada ere, 15 kantu zertxobait "lasaiagoak" dakartzela talde granadarraren azken disko honek.

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kaleko bar) / Tf. 94 491 68 05 / Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Literatura Larrabetzura

Literaturia012 ekimena **ekainaren**
lehenengo aste akaburako iragarri dute

Euskal literatura plazara ateratzeko ekimenak, Literaturiak, laugarren bide-
rez deituko ditu aurten euskal literatura,
irakurle eta kultura-zaleak Larrabetzura.
Datorren hileko lehenengo hiru eguneta-
rako ipini dute hitzordua, hau da, ekaina-
ren 1, 2, eta 3rako.

Larrabetzu Literatura Eskolaren eki-
menez antolatzen den Literaturiak beste
zenbait eragileren eta larrabetzuar askoren
laguntza eta babesa jasotzen du. Aurreko
ekitaldietan adierazi legez, antolatzaileen
artearen dagoen Gotzon Barandiaran idaz-
learen esanetan, *“Literaturia ez da azoka
bakarrik, eta ez da bakarrik literaturzale-
entzat edo irakurzaletzat, euskal kultura
zale danentzat da (...); euskarazko literatu-
ra euskarazko kulturaren zutabeetako bat*

**«Euskarazko lanen azoka,
aurkezpenak, errezitaldiak,
antzerkia, kontzertuak e.a.»**

*da, eta guk hori bultzatu gura dugu, jaki-
naraziz eta ikusaraziz literatura era ludiko-
an ere bizi daitekeela; bai, gogoeta egin
behar dugu euskarazko literaturaz, baina
baita gozatu ere. Gu hori eskaintzen ahale-
ginduko gara”.*

Hala, alde batetik, azoka egongo da,
euskal argitaletxeen eskutik euskarazko



Aurtengo Literaturiako kartela

literatura lanak salgai izango dituen, eta
horrez gainera, mahainguruak, liburu-
aurkezpenak, berbaldiak, poesia eta musi-
ka errezitaldiak, antzerki emanaldiak,
musika kontzertuak e.a.

Oraindino egitarau osoa ezagutarazi
ez badute ere (UK hau inprentara bidera-
tu aurretik, behintzat), hau da aurreratu
dutena: *Lauaxeta: Ez zuten poeta fusilatu*
ikuskaria, umeentzako Literaturiatsuak
lantegiak, *Xentimorik gabe* ikuskizuna,
Mugaldekoak “kantupoema” ikuskizuna,
Xabier Montoiaren emanaldia, Bertso
Trama eta Norte Apacheren kontzertua.○

Info+: www.literaturia.org

liburuak

liburuak

TXILLARDEGI

Fito Rodriguez

Txillardegia
Fito Rodriguez
Erein

Aurten zendutako Jose Luis Alvarez Enparantza (Donostia, 1929-2012) *Txillardegiren* gaineko saiakera laburra kaleratu du Rodriguezek, *“neutral izateko batere asmo barik”*; euskara, herrigintza, literatura eta pentsamenduan idazle eta hizkuntzalariaren ekarpenak laburbildu ditu.

ETXEKALTE

Harkaitz Zubiri
Susar

“Anaitasuna, kinka larrian dagoen fabrikaren aldaketa sakonak egingo ei dituzte... Arazoak eta zurrumuruak zabaltzen hasi dira, lorrin-tzen langileen arteko harremanak”. Hori da Zubiriren (Donostia, 1977) nobela barriaren argumentua, eza-guna askorentzat; amaiera...

Etzekalte
Harkaitz Zubiri
Susar

[kirola]

VI. Futbol Torneoa **abian**

Emakumezkoen Getxoko VI. futbol txapelketa
ekainaren 2an eta 3an



Txapelketak futbol-jarraitzaile ugari batzeko asmoa du

Sei urte betetzen ditu aurten Bizkerrek urtero antolatzen duen emakumezkoen futbol txapelketak. Horrela, oraingoan ere klub getxoztarrak torneo erakargarria sortu du inguruko, zein urruneko futbolzale guzti-guztientzat. Horretan, klub ugari parte hartuko du, helmuga bakar batez: ikuskizuna eskaintzea, eta noski, baita gozatea ere! Parte hartzaileen artean Athletic club, Bartzelona, Oviedo Moderno, Levante UD, Pauldarrak eta Bizkerre FT taldeak daude. Torneoa egun bikoia izango da; ekainaren 2an hasi, eta 3an amaituko da-eta. Aurreko egunean, baina, leian hain zuzen, torneoan lehiatuko diren jokalariei harrera egingo diete, eta ondoren, lagun eta antolatzaileen afaria egongo da.

Hurrengo egunetan, oster, torneoan buru-belarri murgildu beharko dute jokalariek; zapatu arrastian kanporaketa partiduak izango dira-eta. Horietan, sei partida jokatu dira, hurrengo norgehiagokak: Athletic-Pauldarrak, Bizkerre-Oviedo, Athletic-Levante, Bartzelona-Oviedo,

Levante-Pauldarrak, eta azkenik, Bizkerre-Bartzelona. Partidu horiek erabakiorrak izango dira; nortzuk sailkatuko diren hurrengo eguneko finala jokatuko erabakiko baitute. Domekan 12:15ean jokatzeari ekingo diote; partidu hori azkena eta garrantzitsua izango da, Emakumezkoen Getxoko VI. Futbol Txapelke-

**Zapatuan kanporaketa
partidak jokatuko dituzte;
guztira sei**

taren garailearen izena emango du-eta. Ordu biak aldera sariak banatu eta irabazlea izendatu ostean, txapelketa amaitutzat emango dute antolatzaileek. Arrastiko 17:00etan, baina, etxerako bidea hartu aurretik, partaidei ohorezko aureskua eskainiko diete. Soilik egun bi irau arren, intentsoa izango da txapelketa; hala, egun horietan hamaika partidagaz gozateko beta izango dute futbolzaleek. Eta, kasu honetan, beste batzuetan ez bezala, futbolagaz gozateko aukera izango dute etxetik oso gertu! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol
moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Asisko Urmeneta > irudigilea

“Eman izan dizkiguten betaurrekoekin ez dugu ezagutu gure burua ispiluan”

Nafar irudigilea gurean izan dugu *Gartot, konkista aitizineko konkista* filmari buruz berba egiteko; Juanjo Elordigaz batera egin du, Arturo Kanpionen lanean oinarrituta. Pelikula aitzakia, “*Nafarroaren deskonkista kolektiboar*” buruz aritu da, Gautxoriak elkarteak eta Euskara Zerbitzuak gonbidatuta.

—“*Konkista aitizineko konkista*” dio pelikularen izenburuak, zergatik?

—Ikertu genuen filma egiteko eta ohar-tu ginen Kanpionek plazaratu nahi zuen mezuarekin: beste konkista bat eman zela XVI. mendea baino 400 urte lehenago. Hau da, 400 urte lehenago emana zela dagoeneko konkista ikaragarria nafarren kontra, bai militarra, bai mentala.

—*Nafarroaren deskonkista kolektiboaz aritu zara, zer esan gura duzu horregaz?*

—Historiaz ari garela, interesgarria deritzot hedabideetan dagoen eztabaidari: ea historia aldarrikatu behar den, helburu politikoetarako lanabes den, zer den postmodernismoa. Bada jakinmina, baina era berean, ez dakigu nola antolatuta eta sozializatu deskubritzen ari garen hori dena. Sentsazioa daukat moketa azpian ezkutatu digutena, hor badela gauza franko eta ateratzen joango direla, nahiz eta gauza asko betiko suntsituta geratuko ziren. Baina dakizkigunak sozializatu behar dira, gure mitoak ukatu egin zaizkigu-eta. Deskonkista kolektiboaren ize-nean, uste dut historiari beste betaurreko batzuekin so egiten ahal diogula, eta betaurreko horiekin, ispiluan ezagutuko dugu beharbada gure burua, orain arte kontatu dizkigutenekin ez baitugu eza-gutu. Beraz, bi bide jorratu ditut: bata



Filma egiteko, Arturo Kanpionen lanean oinarritu dira Asisko Urmeneta eta Juanjo Elordi

dogmatikoa, orain arte gailendu dena; eta bestea enpirikoagoa eta nazionalagoa, hain baztertuta izan duguna. Kanpionen lana sozializatzeko egin genuen komikia eta hurrengo urrats naturala izan da filma. Gero, bideak osatu du lehenengo susmoa eta prozesuan ikasitakoak eraman gaitu hitzaldi mota hauek egitera.

“Hizkuntza bakarra dugu, aberastasun guztiekin, horietako batzuk giltzarri hartuta bukaera arte ikus eta ulertzen da filma”

—Zaraitzuko orduko berbakera errespetatu ei duzue, ulermena muga lezake? —Ez dakigu garai hartan zehazki nola hitz egiten zuten, baina eman diogu Nafarroako mendietatik heldu den kutsua, azken batean, zerotik sortu behar izan dugu dena, ez bakarrik hizkera. Ulermenari dagokionez, DVDan agertu-

ko dira euskara batuko azpitoluak, baina apustua da euskaraz egitea, euskalkia edozein dela. Hasierako minutuak zailak egiten zaizkie ikusleei, euskaraz gain, okzitanieraz eta latinez hitz egiten dutelako. Baina laster ohitzen dira. Guk hizkuntza bakarra dugu, aberastasun guztiekin, horietako giltzarri batzuk hartuta,

bukaera arte ikus eta ulertzen da filma. Gainera, hemendik kanpora ere aurkeztu dugu filma, adibidez Malagako festibalean, eta espainol batzuk ere hunkitu ditu filmak. Alde horretatik ere interesgarria da filma; batetik, gure burua ispiluan ikusteko, eta bestetik, gure burua esplikatzeke munduan. ○

Fredi Paia

Seinen sekretuk

Sarriten, kontradizino begindu baleike bere, seinek eta gaztek ixeten direz usadiorik zaharreneen jabile, eurek ez badakie bere. Zapalduteko herriten umeri irekatsiten ixen dakez negosintzet galazota nahi txarto eretxite egozan ohiturek. Edade beteti gorakok ezin eurrera eron eikezan, ezpabere, aginterintzet txarto ikusite egokeran, begiten hartun eta zigortuko eudezan. Ostera, seine eta gazteri beti barkatuten ixen dake gihau. *Seinen kontuk direz* esanta arean tenpleuko zan aginterin hasarre. Horreetara, ohiturek belaunaldirik belaunaldi segiten iaun, seinetan ikusiko bizitze duztireko da-ta. Horrexeaiti, seinen tradizionon arten topa gengiz sasoi beten gure herrin inder handiko ixen zien usadiok.

Esaterako, bada Algortako Portu Zaharren oin gitxi arten mantenduten ixen dan usadio bitxi bet. Korpus egun bezperan Portuko seinek alkartu iten zien. Koadrilen batute jotzen zien Neguriko lorategitera eta bertan lorak koisten eudezan. Egune in eurreti Portun batzen zien osta bere eta lorakaz irudik iten eudezan.

Abuztuko Andra Mari egunen buelten zelebraten direz Portuko jaiek. Eta gazten arteko probek sano antxineko ohituren antza handi deke. Lekitton bere iten deudezan altxadak alde batera itxite, Kantauri nahi Pirineotako anega terdi herriten topa gengin Kukañe bere hor dau. Guren Caro Baroja ta Barandiaranek lez, Europa duztiko ikerlarik bat datoz Maioa, edo zugatxa plazan altxateko usadio zaharra, arbola eta landaredin kultoaz lotute daule. Maiezta iten ixen da leku betzuten, baie herriko ospakizun nagositen bere. Portu Zaharren kukañe zutunik nahi etzunde paraten da, olgeta desbardin bi iteko:

Etzunde paraten danen, helburu, punten ta erdikalden daozen banderak batze da. Gantzagik emoten dakoz kukañeri gaz-



“Portu Zaharren kukañe zutunik nahi etzunde paraten da, olgeta desbardin bi iteko”

tek laban in te uretara jeusi daitezatzen. Modu hori ez dau horren ikertute, kostaldeko herriten baino iten ez dalakon.

«Sarriten, seinek ixeten direz ohiturerik zaharreneen jabile, eurek ez badakie bere»

Ostera, zutunik paraten dana aitetu barri dun lur arlo zabalen ikus lei. Koadrileko gaztek bata besten ganen para ber direz zutunik. Behekon bizkerrak goikon pisuri eutsi ber dotse. Holan ailega ber deude kukainan burun daon bandere kois-tera. Tarten, koadrileko garestikok ingerun dabiltezen zekorrek kinetu ber deudez. Ezpabere, kukainan burure ailega guren

dabiltezanak atrapa eta eguno ez deude bandere kosiko. Olgeta horretan gure kulturen sano antxineko elementuk batzen direz: plaza erdin zutunik paratako arbola, zekorrek, gaztek bata besten ganen parata alture koisteko abilide....

Sein eta gazten arten gorde direzen usantza zaharrak kontaten akabateko, Erandioko Goierrin ondinokarren transmitiduten dan olgeta beten barri emongo dotsuet. Maritxu-tailetakoaz iten da olgete. Eskun goikalden paraten itxiten dako, atzamarrak bitarte barik batun eta atzamarririk luzena eguzkiri adi paraten dako punteaz ikututen egongo bagintzez lez. Ordun Maritxu tailetako eguzkik ta gure atzamarrak bat iten deuden puntera iyengo da karraderan, eguzkin ingerun hegan hasi eurreti. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina trianguetan
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak
Pollo asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Rukula izokinagaz

itsasoa eta lurra bat eginda



Rukulak eta izokin keztatuak konbinazioa berezia sortzen dute

Erraza bezain gozoa da gaurkoan aurkeztu dizugun pintxo ederra. Oraingoa itsasoak eta lurra emandako produktu bik bat egin dute, eta ogi txigortuaren gainean jarritako izokin eta rukulaz egindako pintxoak ekarri dizugu. Gozoa ez ezik, osasuntsua ere bada honakoa; uda heltzean dagoenean, eta geure burua zaintzeko joera dugun honetan: pintxo egoki baino egokiagoa da. Has gaitzen lehenengo eta behin, pintxoaren oinarria azaltzen; hasteko, arto-ogi xafla txigortu behar dugu, behin txigortu dugula, ogia-ri oliba-olioa eta piperbeltz-zuri apur bat botako diogu. Horrela, ogiak gustua hartuko baitu. Ondoren, rukula hostoak garbitu, eta zatitu egin behar dira. Rukula zatitu dugunean, izokin keztatu

ere gauza bera egingo dugu: zatitu. Beraz, rukula eta izokina zatietan ditugula nahastuko ditugu, nahasketari olio eta gatza gehitu beharko dizkiogu, entsalda izango balitz bezala. Azkenik, eta amaitzeko, izokin eta rukula nahasketari hori ogi-xafla gainean polito jarriko dugu. Eta, pintxo prest egongo da hura janz goza dezagun. Rukularen zapora garratzak eta izokinaren leuntasunak sekulako kontrastea sortuko digute ahoan. Hala, itsas eta lur haizeek sortutako pintxo erraz egitekoa da, eta arestian, esan bezala, osasuntsu-baino osasuntsuagoa ere bai.

Osagaiak: arto-ogia, oliba-olioa, gatza, piperbeltz-zuria, rukula, izokin keztatua



LAIAK Taberna



BASARTENA

URDULIZ
Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA


LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxareriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
Tf. 94 460 02 88
ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Uda heldu barik dago oraindino eta Cancunetik etorri barria ematen duzu zuk, beltzaran baino beltzaranago. Hainbeste eguzkik burua erreko dizu azkenean.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Azkenaldian lanez gainezka eta lotu barik zabilta. Hartu atsedeen eta opor egun batzuk, eta joan leku lasairen batera. Bestela, tarterik ez baduzu, yoga egiten has zaitezke.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Adarra ez da beti urtetzen zuzen eta askotan okertu egiten da, bizitzan hamaika kontu bezala. Lasai, igaroko da sasoi gogor hau ere eta etorriko dira garai hobekak, luze jo barik.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Badirudi apurka-apurka loratzen dagoela udabarria, eta daborduko ganbarara igo dituzu neguko jantzi potoloak. Ez erabili aitzakiazat arropa gehiago erosteko, gero!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Eta joan da beste urtebete. Denbora aurrera... baita adina ere! Zahartzaren hasita zaudela? Hori zure burutazioak baino ez dira, gaztetasuna barruan eroan ohi da-eta. Aupa zu, beti gazte!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hurbil dago, laster dator zure urtebetetzea... Jaialdi itzelagaz ospatuko duzu Trapagaranen, lagunez eta euskaltzalez inguratuta. Zuk bai zuk jaiak antolatu!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Azkenean amaitu dituzu azterketa madarikatuak, zorionak! Orain oportetarako unea iritsi da eta klasekideakaz joango zara bidaian. Kontuz ibili, elkarregaz haserretu barik, gero!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Krisia gora, krisia behera, zu beti ibili zara krisiak jota. Orain zorionekoa zara, penak alkarregaz txikiagoak izaten dira-eta; izan ere, askoren gaitza txikiagoa ei da partekatuta.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Daborduko prestatu duzu ikastoletako jaialdiarako motxila eta ez duzu kenduko aste batzuetan: Herri Urratsen ederto pasa zenuen, eta badatoz Ibilaldia eta Araba Euskaraz. Animo!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Azterketa garrantzitsua datorkizu laster. Urte osoa daroazu ikasten eta prestatzen, horrenbestez lasai joan, ondo egingo duzu-eta. Kontrara gertatuz gero, beti dago beste aukeraren bat...

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Badirudi zure lana etekina ematen hasi dela eta arestian landatutako haziak fruituak dakartzu. Gainera, bide berean jarraituko du, zain itzazu eta ureztatu noizki behin.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Azkenean igaro da zure aldia, negua. Hotza albo batera lotu da, laster dator uda eta, horregaz batera, gerezi gorrien garaia. Bapo ipiniko zara, baina lasai egon, gura beste jan ditzakezu-eta. Gozatu!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Otsoaren umeak. 2. Ipar Euskal Herrian, harroa, harrotasunez betea. Tolosako auzoa, San Blas ere deitua. 3. Iodoaren ikur kimikoa. Salaketa egile. 4. Ikuer, marka. Eduki, ukan. 5. Nafarroan, urtarri. Gar. 6. Kanpo, landa. Hots ez atseginak, harrabotsak, burrunbak. 7. Luzeraren norabidean. Ate, hitz elkarteetan. 8. Gabarra txikia. Gizon zahar. 9. Europako estatu bateko hiri-buruko. 10. Akitaniako hizkuntza.

Goitik behera

1. Legezko agintea gauzaten duten erakundeetatik datorrena, edo horri dagokiona. Lehengo bokala. 2. Titanoaren ikur kimikoa. Hats beherapen hertsatu eta zaratsuak, gehienetan arnasbideen minberatasunak eraginak. 3. Liskar. Puska. 4. Legamia, altxagarria. Interjekzioa. 5. Potasioaren ikur kimikoa. Luzeraren norabidean era berezi batez hedatua. 6. Bizkaieraz, bikea. Igaro, pasa. 7. Mutikoa. Nafarroako Txulapaingo lekua. 8. Modu egokian, ondo. Bitarte. 9. Gipuzkoako Debagoienako herri bateko. 10. Keinuak eginez. Antzinako Egiptoko jainkoa.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein animaziozko filmaren gainean egin digu berba Asisko Urmenetak?

> Aurrekoaren erantzuna: Leioako Avanzadako pasabidea

> Irabazlea: **Leire Martinez**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Zein pailazo egon ziren Getxon bilaren 14an?

- Txirri, Mirri eta Txiribiton
- Pirritx, Porrotx, Marimotots
- Pitxirri eta Morrotxo

> Aurrekoaren erantzuna: Liburuaren Nazaioarteko Eguna

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Oinutsik**
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

SARIA **La Gusana**
liburudenda **lagusana**

Tellagorri plaza, ALGORTA. Tel: 94 491 14 12

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



*RASPAS'EK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

AREETAKO RASPAS TXAPELDUN, 1945

Areetan bertan jokatu zen urte honetako Espainiako Trainerilla Txapelketa eta argazkia ere Areetako ontzirelekuan aterata dago; hor ditugu zazpi arraunlariak, arraunak gorantz dituztela. Ziur-ziur ez dakigu, baina seguraski argazkilaria, Razquin izango zen, Areetan oso ezaguna. Garaipen honi buruzko beste argazki bat UK-ko 184. zenbakian (2010-11-02) atal honetan agertu zen, Razquinek aterata; eta iazko urtarrilean, Getxoberriko 1163. zenbakian, agertu zen informazio gehiago txapelketa honetaz. Hauze da Raspasek lortutako garaipenik garrantzitsuenak; zilarrezko domina Castro Urdialesentzat eta brontzezkoa Santurtzirentzat izan ziren.

Brankatik popara: Angel Otxoantesana "Totoa", Ino Rubio, Rafael Ontoria "Pugil", Jose Gonzalez "Chatarra", Juan Agirrezabalaga "Gorrión", Teodoro Benza "El castreño", eta Jose M^a Maria Mier "Ginebrin" patroia.

IBON ALTUNA > Abeslaria

“Korta eroango nuke irla isolatu batera; bertatik urteteko”

Testua: **Nerea Guijarrubia**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Ibon Altuna, uste dot oso ondo definitzen nautela.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez dakit protagonista, baina Vinnie Jones-egaz batera edozein filmetan parte hartuko nuke.

Gorrito duzun topikoa?

Euskaldun Fededun On-dun. Euskaldunak gaiztoak, eta lotsabakoak badira, ez ote dira euskaldunak?

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Txoria; hegaz alde batetik bestera ibiltzeko, nik gura dudanean.

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Tabakoa eta kafea.

Zein da zure ametsetako bat?

Karibeko irla batera, edo behintzat beroa eta eguzkia dagoen leku batera ihes egitea, negua oso gogorra da Euskal Herrian.

Zein hutsegite ez duzu inoiz barkatzen?

Normalean dena barkatzen dut oso biguna naiz, baina lagunen batek mesede bati ezetza ematean, asko kostatzen zait barkatzea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Askok aukeratu behar badut kostaldeko bat aukeratuko nuke, Arminza. Herri txikia, lasaia, portua eta itsasoa, udan askotan joaten naizen lekua da, eta oso gustura egoten naiz.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Jose Luis Korta, bertatik urteteko.

Gogoko esaldirik edo lelorik baduzu?

Arrasateko atezain batek esaten zuen bat: “Aurrera Bolie”.

Zerk ematen dizu beldurra?

Bakardadeak, inor alboan ez izateak. ◊

LABURREAN—Aurreko maiatzaren 11n, sanisidroetan, jaiak alaitzen izan genuen *Itziarren Semeak* talde mungiarra, eta aukera hori aprobetxatuta, Ibon Altunagaz, taldeko abeslariagaz egon ginen; eta hauexek, goialdean, ikus ditzakezunak dira UK-ri aitortu zizkionak. Daborduko, talde mungiarrek laugarren diskoa kaleratu barri du *Basque of Brixton* izenekoa. Zalantza barik, denbora luze joan da Itziarren semeek lehenengo urratsak egin zituztenetik; 2006an Mungia lokaletan jotzen hasi ziren, eta 2008an lehenengo diskoa kaleratu zuten. Orduetik, familia eta lagun artean, Ibonek ahotsa jarri ohi die, Mungialdea sorleku duten letra eta doinuei.

Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak



2012

U	P	O	P	L	I	M	R	V	N	F	U	P	M	T
O	Z	K	L	U	K	O	V	Ñ	T	H	T	B	U	F
J	X	W	Ñ	P	H	N	V	I	X	Y	N	U	D	E
O	V	N	B	U	H	K	H	D	V	B	G	F	F	S
A	B	E	R	T	S	O	E	S	K	O	L	A	E	W
R	B	G	F	F	S	Q	R	Z	B	H	W	C	T	D
E	T	G	E	U	R	E	R	Y	B	M	T	E	D	S
F	G	O	J	Q	S	A	I	W	E	W	E	D	Q	X
U	P	Ñ	I	K	O	P	A	L	E	T	Z	T	Ñ	N
R	N	B	U	H	K	L	I	Ñ	X	W	Y	I	R	A
E	T	K	R	E	W	Ñ	K	O	S	O	I	O	P	G
J	H	W	C	T	Z	U	H	K	A	A	K	Y	R	V
T	X	P	Ñ	I	K	A	D	Q	X	Z	N	G	V	
P	V	N	B	U	H	K	B	Z	U	B	U	R	V	
N	V	T	K	R	E	W	Y	A	W	S	E	A	A	
T	B	G	F	F	S	Q	O	T	L	L	A	X	Z	
A	T	G	E	U	R	E	B	H	E	D	F	Q		
J	G	O	J	Q	S	A	T	B	E	W	U	W		
O	P	Ñ	P	L	A	Z	A	V	E	G	C	X		
M	N	B	U	H	K	L	E	Q	P	L	T	N		
I	T	K	R	E	W	Ñ	S	Q	L	U	K	O		
U	H	W	C	T	D	U	H	T	C	R	E	S		
O	N	E	E	I	J	O	K	N	T	B	F	D		
J	T	V	R	E	Z	O	O	I	P	J	Y	B		



XXIX

ESKULANGINTZA AZOKA
FERIA DE ARTESANÍA

2012

GETXO



MAIATZAK
25 / 26 / 27
MAYO

AREETAKO GELTOKIA PLAZA
PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

11:00-14:30 / 17:00-21:00

Larunbatean / Sábado:

21:30era arte - hasta las 21:30


SARRERA DOHAINIK
ENTRADA GRATUITA

Antolatzaileak / organizan:



Babesleak / patrocinan:

Laguntzailea / colabora:



metro bilbao